

# uk

178. zenbakia / 2010eko ekainaren 28a





**bai**  
euskarari

**Euskaraz  
aritzeak  
konfiantza  
ematen die  
bezeroei**

**Euskaraz  
negozio  
hobeak egin  
daitezke**

## 1.500 entitate baino gehiago ziur daude

10  
urteziurtagiriaren **elkartea**

902 43 00 26 / 05 59 25 50 41    [baieuskarari.org](http://baieuskarari.org)

balioa eta berrikuntza

92



**Getxo**  
 URSAL - KUTXARREN TO  
 Eusko Enbata



**Erandioko Udala**



Plentziako Udala

TRATU TXARREN  
BIKTIMAK ARTATZEKO  
**EUSKO JAURLARITZAREN**  
TELEFONO ZENBAKIA:  
**900 940 111**



Department of Education  
Government of Karnataka



Urdulizko Ud



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzaren  
Kultura Sailaren  
dirulaguntza jaso du

**BFA**  
**DFB**  
**Bizkaia Foru Aldundia**  
**Deputación Foral de Bizkaia**  
Kultura Zela  
Departamento de Cultura

49. NORA JOAN. Solaguren txinatarra, Gebxo.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Gorlizko fisioterapia laguntzaileak, 1960.
54. AITORMENAK. Eneritz Iturriaga.

Azala: Ainara de la Torre



30 Gorka Andraka

Armintzako kazetariak *Mar de Fue-*  
*guitosen* urteurrenaz, irati libreez,  
gizarte mugimenduez e.a. jardun du



11 Cesareo Miguelez



54 Eneritz Iturriaga



## Leioa Berri Auto

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak
- Tailerra
- Autokarabanak

HARTU TXANDA ONLINE - CITA ONLINE

WWW.RENAULTLEIOA.COM



Leihatila

> Aiala Elorrieta

Bat-batean

Bat-batean eta gura barik, ingurukoek haien elkarrizketetan sartzen gaituzte. Hondartzan gaudela, aldameneko neska biek, ordu erdi luzez berba egin dute herrian zabaldu barri duten fruta-dendaz; edota, bezperako ligoteo kontuez. Batzuetan, egia da, ez dugu solasaldi hauen parte izan gura. Ostera, entretenitu gura badugu, edozein elkarrizketa lerdok, gure ordu erdiko bidaiari behar duen gatza ematen dio, eta eguna alaitzen digu. Eta beste batzuetan elkarrizketa interesgarriakaz egiten dugu topo, bat-batean, gura barik. Kuriositatea pizten digute, eta tartean sartu eta galderak egiten hasteko gogoia sartzen zaigu. Edozein ikerketa soziologiko baino askoz esanguratsuago, edozein dokumental ikustea baino interesgarriago. Gazte bi, pisu bilaketa eta alokairu kontuez. Aitite-amamak, aspaldiko istorioak gogoratzen. Ez dute ulertzen gaurko belaunaldiek nola funtzionatzen dugun. Aurreko batean, Salvadorreko emakume bi, hemen bizi dira eta haien alabei buruz ari dira. Batenak hemendik alde egingo du, zaila egiten zaio hemengo bizitzara ohitzea, ez du bere ikasketakaz loturiko lanik topatzen. Bestearen alaba Salvadorren dago ordea, ezin du hango egoera gehiago jasan, eta hona dator, babes bila. Gure errealtatearen isla, hortxe dugu, eguneroko gure inguruko jendearen hizketaldietan. Zuzenean, bat-batean.

gu geu

Itxi txorrota, mesedez

Lerro hauek idazten ari garela euriak ibaien emaria elikatzen du, inguruan bizi diren bizilagunak urdurituz (edo haserretuz, kasuaren arabera). Baina aldizkariko albisteek ez dute neguko planen barri ematen, inondik inora. Musika jaialdiak eta kaleko ekintzak dira 178. aleko protagonista: Getxoko Jazzaldia, Bilboko BBK Live musika jaialdi erraldoia, Gaurik Laburrena film laburren emanaldia, Algortako Bertso Eskolako lagunek antolatzen duten Bertso Saio Mundiala... gustuen arabera, bakoitzak bata edo bestea aukeratuko du (badago bat ere gaitzen ez duenik).

Euria eta udako jaialdiak; bateragarriak al dira? Ez da lehenengo aldia izango gure klima tropikaleko herri maite honetan, guardasola eskuan eta oinak bustita kontzertuak entzutera goazena. Getxon adibidez, euria buruhauste izan ez dadin, karpa azpian egingo dituzte Jazzaldia, film laburren emanaldia eta bertsolarien saioa.

Baina, lasai egon lagun! Uztailean sartzeagaz batera hodeiek jai hartuko dute eta zero urdinak eta temperatura beroak Uribe Kostako hondartzetara joaten gonbidatuko gaituzte. Lerro hauek hondartzatik irakurtzea opa dizugu!

UK-ko lantaldea

Iritzia

Berangoko Jai Batzordeko zenbait kidek, ondoko iritzi artikulua helarazi digu, jai-en inguruan hartutako azken erabakien aurrean, euren desadostasuna agertzeko.

Dena herriarentzat, baina...

“*Dena herriarentzat, baina herririk gabe*”. Despotismo ilustratuaren garaiko adierazle den aurreko esaldi ospetsua, egunez egun praktikara daroa Berangon Anabel Landa alkateak. Alkatetzara ai-

legatu zenean bere asmoa herritarren parte-hartzea areagotzea zela esan bazuen ere, praktikan, bere jarre-ra bestelakoa izan da. Azken 3 urteotan, herriko auzokideak kudeaketa esparru

guztietatik kanpo uzteko asmoa erakutsi du. Hirigintza Antolamendurako Plangintza Orokorraren tramitazio osoan, adibidez, arrazoi espekulatiboak lehenetsi ditu Udalak, herritarren parte-hartzea alboratuz.

Zoritxarrez, aurrekoa ez da kasu isolatua izan, beste esparru batzuetan ere bere jarrera autoritarioa inposatu baitu. Azken urte bietan, esaterako, Jai Batzordea kontrolpean mantentzen saiatu da Udala. Landa anderea alkatetzara heldu aurretik,

herriko elkarteak eta auzokideak ginen jaietako egitaraua diseinatzten genuenak. Baina alkatea Jai Batzordean alkate gisa parte hartzen hasi zenetik, gustuko ez zituen erabakietan bere betoa inposatu du.

Azkenean, urte batetik bestera, bere kabuz, aldebakarrez, Jai Batzorde Herrikoia disolbatzea erabaki du. Herriko jaien antolaketaz Udala arduratuko zela jakinarazi zien elkarteei maiatzaren erdialdean, gutun bidez. Ekintzak proposatzeko, baina, hiru asteko epea zabaldu zuen. Zorionekoak gu zure eskuzabaltasunagatik, Anabel!

Salatzekoa da Udalak Jai Batzordea desagerrarazteko ahalmena izatea eta inolako azalpenik ez ematea hura osatzen duten elkarteei, eta noski, herriko auzokide guztiei. Zein da erabaki honen atzean ezkutatzen dena? Udalak argi utzi du zein den bultzatzen duen jai-eredua: elkarte eta auzokideen parte-hartzerik bako jai instituzionalak, azpikontrataturako enpresen eskura egindakoak, kolore gris uniformeaz margotutakoak.

Hala ere, Berangoko kasua ez da baka-rra. Gero eta gehiago dira Jai Batzorde Herrikoei jartzen zaizkien trabak. Baina zorionez, oztopoak oztopo, egunez egun harri horiek paretik kentzeko eta aurrera egiteko gai direnak ere badira. Zentzu honetan gure babesik beroena Euskal Herriko Jai Batzordeen I. Kongresutik sortu berri den jai herrikoien sareari.

Auzokideak baitira jaien protagonista, jaiei zilegitasuna ematen dietenak, gris uniforme hamaika koloretan bihurtzen dutenak. Horregatik, aurrerantzean, Berangon ildo honetatik lanean jarraituko dugula argi utzi gura dugu. Ilusio, umore, elkartasun, irudimen eta parte-hartzerik bako jaiak nekez uler ditzakegulako. Jaiak herri-tik, herriarentzat!

Aintzane Mardaras, Hegoi Uriarte, Juan Uranga, Usoa Muñoz eta Jurdana Altonaga (Berangoko Jai Batzordeko kideak)



ALGORTA. EKAINAREN 12A

**Urrezko txokoa/** Berrogeitamar urte bete ditu Algortako Bidebitarte txokoak, auzoko zaharrenak, eta auzotar guztiakaz ospatu zuten ekainen 12an eta 13an. Ezaguna da oso txokoa auzoan, hamaika ektaldi egin dute urteotan, Udalak edo herriko taldeek behar dutenean beti daude laguntzeko prest: ikastola, ALBE, UK, Getxophoto, pilota eskola... Kideak ere 50 dira, baina 80 lagunetik gora izan dira. Ekainaren 12an sortzaileak omendu zituzten ektaldi bategaz eta euskal makila eman zieten, argazkian ikus daitekeenez. Zorionak, Bidebitarte! O / Argazkia: Asier Menthaka



# ELKAR- TRUKEAK INTER- CAMBIOS

IRLANDA / LETONIA / AUSTRIA / ERANDIO  
abuztuak 2-8 agosto 2010

**PLAZA MUGATUAK (16)**  
**IZENA EMATEKO:**  
uztailaren 9ra (12:00etan)  
PREZIOA: 100 €  
**ERANDIOKO GAZTE INFORMAZIO BULEGOA**  
(Irailaren 23a plaza-48950 Erandio)  
Tel.: 94 602 58 91  
email: gazteinfo@erandio-udala.net

**PLAZAS LIMITADAS (16)**  
**INSCRIPCION:**  
del 5 al 9 de julio (12:00 horas)  
PREZIOA: 100 €  
**ERANDIOKO GAZTE INFORMAZIO BULEGOA**  
(Irailaren 23a plaza-48950 Erandio)  
Tel.: 94 602 58 91  
email: gazteinfo@erandio-udala.net

**SARTZEN DA:**  
Kirol ekintzak, kulturalak,  
tailerrak, irteerak, lekualdatzeak, pentxo osoa, aseguruak.

**ESKATZAILEEN BETE  
BEHARRAK ESKAKIZUNAK:**  
- Erandion errolatuta egotea.  
- 1993 eta 1995 jaiotak.  
- Ingelesko ezagutza nahikoak izatea, hizkuntza horretan  
lan egiteko eta barremanak eduki ahal izateko.

**ZOZKETAK:**  
2010eko uztailaren 9an, goizeko 12:00etan.

**REQUISITOS QUE DEBEN CUMPLIR  
LOS/AS SOLICITANTES:**  
- Estar emparejado en Erandio.  
- Haber nacido entre 1993 y 1995.  
- Tener conocimientos de inglés suficientes para trabajar  
y comunicarse en esa lengua.

**SORTEO:**  
9 de julio de 2010 a las 12:00.

Primera reunión para participantes  
seleccionados y padres/madres el 12  
de julio a las 17:00 horas en la sala de  
antiguo Correos.

- Familietan egonaldia Erandion.
- Alojamiento en familias en Erandio.



ERANDIO ELIZATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE LA ANTIGUEIRA  
DE ERANDIO



## Iraganez doa denbora\* beti / SARRI, GETXO

\* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



uribitakora > atzekoz aurrera



2010eko maiatza, Leioako Umore Azoka

Testua: **Imanol Uria**  
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Jendearekin oso harrituta nago eta hau ikusita apur bat gehiago. Honek dena ikusi behar du arraro, baina ez horrenbeste, pentsatu dut, klaro: mundua bera nahiko aldrebes baitago.

2

Krisian gaude eta zenbat gora behera, behin sartu ginen eta ez gara atera. Dirurik ez da heltzen kontu korrontera hau ulertzen duenik inon ba ote da? Herria nola irten behar da aurrera?

3

Malgutasunarekin horrenbeste truko aldrebes gabiltzala edonor lekuko, baina sufritzeari denok egin uko; tipo hau nekatzean nahiz den arteztuko, mundua ez da horren erraz zuzenduko.

\* Doinua: Agur sagar beltzaran

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidai egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti! [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)

euskara > mintzapraktika baserrian uda honetan



Izena emateko: [mintzapraktika@topagunea.org](mailto:mintzapraktika@topagunea.org) edo 948 13 26 93

**Kutsidazu bidea...** dio lan ezagunak. Bada, erakutsiko dizute uda honetan. Izan ere, mintzapraktika baserrian egitasmoa abiatuko dute EHNE sindikatuak eta Topaguneak, Busturialdeko eta Mungialdeko 17 baserriren laguntzagaz. Ekimen barrizaillea, ez bakarrik baserria aukeratu dutelako euskara praktikatzeko, truke azoka modukoa izango delako baizik. Programan doan parte har daiteke, gura eta ahal den beste denboraz: egun pasa, egun pare bat, astebete... Baserritarrek mantenua eta ostatua dohainik eskainiko diete mintzalagunei, baserriko lanetan ahal duten neurrian laguntzearen truke. Baina lasai egon, hasi aurretik, EHNEk formazio saio xumea eskainiko die parte hartzaileei, baserriko lanaren oinarritzko tekniken barri izan dezaten. Izena eman daiteke ekainaren 25era arte: [mintzapraktika@topagunea.org](mailto:mintzapraktika@topagunea.org) edo 948 13 26 93. Euskara praktikatzeaz gain, baserri giroa ezagutzeko aukera bikaina! o

5 waves 5 continents > Kepa Acero Indonesiara iritsi da



[www.fivewavessurf.com](http://www.fivewavessurf.com) gunean jarrai daiteke algortarraren abentura

**Namibia** utzi eta Indonesiara abiatu da Kepa Acero Algortako surflaria. Mundua zeharkatzen dabil *5 waves 5 continents* egitasmoagaz, munduko 5 olatu berezienetakoak surfeatzeko, bidaia, surfa eta artea lotuz. Pou anaien eta Unai Basurkoren proiektuek ispiratu zuten, baina Acero, bakarrik abiatu da bidaian. Horrek aukera eman dio jende asko eta bestelako kulturak ezagutzeko, are gehiago, horixe da bere asmoetako bat, eta hori dena guztioi kontatzea: kronikak eta bideoak topatuko dituzu [www.fivewavessurf.com](http://www.fivewavessurf.com) gunean. Algortarra ikusiko duzu itsas txakurren artean surfean, namibiarrakaz solasean, desertuan bakarrikzketan, edota lehoi eta jirafa artean. Indonesiaren ostean bisitatuko ditu Australiako desertua eta Txile, egitasmo ederra, Mundakan, etxean amaitu orduko. o



Roke Deuna 25  
20808 Getaria  
Gipuzkoa



...hamia      ...lehengo garaiak...      ...itsasoa

[www.siazgetaria.com](http://www.siazgetaria.com) / [info@siazgetaria.com](mailto:info@siazgetaria.com) / Tf. (+34) 943 140 143



emakumea > Emakumeok Plazara! egitasmoa abiatu dute



www.emakumeokplazara.org helbidean bete daiteke proiektuan parte hartzeko fitxa

**Emakume** sortzaileei bere txokoa eskainiko dien proiektu bategaz dator Bilgune Feminista: Emakumeok plazara! Izan ere, “urteetan zehar eremu publikoaren, plazaren, oholtzaren eta kalearen erabilera mugatu digute, beraz, ekarpenak egiteko ditugun arazoak gainditzeko” bide bat zabaldu gura dute webgune honen bitartez. Emakumeek egin ekarpen kulturalen baliabideen zerrenda osatuz joango dira bertan: [www.emakumeokplazara.org](http://www.emakumeokplazara.org). Horrela, jai batzordeek kultur eremuan diharduten emakume solte eta taldeen zerrenda izango dute eskura, “jaietan emakumeen presentzia areagotzeko tresna bat gehiago” izango da. Bilgune Feministak aspaldi abiatu zuen jai parekideen aldeko kanpaina, hainbat helburugaz: jaien antolakuntzan emakumeen parte hartzea bultzatzea, jaien aitzakiapean ematen diren erasoakaz amaitzea eta jaietan emakumeen parte-hartzea areagotzea. Azken horri erantzun gura dio egitasmoak. ○

bertsolaritza > eskualdeko bederatzi bertsolari Bizkaiko txapelketara



Jone Uria zuzenean sailkatu da Bizkaiko txapelketarako, Uribe Kostakoa irabazi ostean

**Azken orduko** aldaketarik ezean, eskualdeko bederatzi bertsolarik parte hartuko du Bizkaiko Bertsolari Txapelketan, udazkenean. Izan ere, Jone Uriak irabazi du Uribe Kostako txapelketa, eta puntuen arabera sailkatu dira Itxaso Paia, Aitzol de Castro, Arrate Illaro, Joanes Igeregi, Peru Vidal eta Beñat Vidal. Bizkaiko Txapelketan 30 bertsolarik parte hartuko du hasierako kanporaketetan, baina aurreko edizioetako finalistek ere aukera daukate talde horretan sartzeko. Beraz, aldaketaren bat gerta liteke. Gainera, azken txapelketako finalistak finalerdietan sartuko dira, Algortako Fredi eta Xabi Paia barne. Txapelketako antolatzaileak pozik daude eskualdeetako emaitzagaz; izan ere, “Bizkaiko bertsogintzaren hormairudia osotzen joan eta inoiz baino kolore gehiago eduki” duelako. ○



“Ni ez naiz nagusia; berdinen artean lehenengoa naiz”

Cesareo Miguelez > Neguriko Karmen elizako Agustindar nagusia

**100 urte bete ditu** Neguriko Karmen elizak. Uztailaren 16an egingo duten ospakizunaz gain, erakusketatxo bat jarri eta elizaren historia biltzen duen liburua kaleratu dute. Cesareo Miguelez 2002tik Neguriko elizatzkoa kudeatu duen Agustindar nagusia arduratu da horretaz guztiaz: “Ni ez naiz nagusia; berdinen artean lehenengoa naiz”. Umiltasunez berba egiten du Karmenen lasaitasuna aurkitu duen Urdanetako literatura irakasle ohiak: “Irakaslea, giltzazaina... ikasleekaz gora eta behera ibili behar nintzen ikastetxean, lotu barik”. Orain, egunkaria hartu ostean, ohiko otoitzaldiak, konfesatzea... eta gutxi gehiago: “Gurea ez da parrokia, horregatik ez dugu hiletarik ezta ezkontzarik ere, San Inaziokoek delegatzen ez badizkigute”. Urte bete inguru eman du elizaren historia ikertzen, liburua eta erakusketa osatzeko; gura barik hasi zen: “Hona heldu eta urte bira, argazki zahar batzuk aurkitu eta koadrotxoa osatu nuen. Hortik aurrera jendearen laguntzak egin du dena; ni berba batzuk harilkatzearen arduraduna besterik ez naiz”. Argazkiak, egunkarietako artikulua eta testuak bildu dituzte liburuan: “Amann elizako arkitektoaren bilobaren, Maite Gonzalezen eta Javier Torresen laguntza ezinbestekoa izan da niretzat”. Antonio Machadori eta Gonzalo de Berceori erreferentzia eginez agurtu gaitu, literatura irakasle bihotza duela argi utziz. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

**Areetan**  
Villa de Plentzia, 6.  
T 94 464 90 87  
E areeta@cianoplan.es

**cianoplan**  
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763  
www.cianoplan.es



# Ekaineko eurien arrastoa

Ekainaren 16ko euriteak uholdeen mamua ekarri zuen barriro eta **lanak urgentziaz berrartzera** behartu zuen; Udalak **60.000 euro** bideratu ditu **kaltetuentzat**

Azken bi hileotan Gobela ibaiko lanak albistegai izan dira behin eta barriz; Foru Aldundiak eskatuta lanak gelditu ziren ekainaren 9an, arrain hiruarantzarentzat kaltegarriak zirelakoan; 14an obrakaz jarraitzeko baimena eman zuten barriz ere. Egun bi berandua-go, euri zaparradek 107 litro metro koadro utzi zituzten eta zenbait etxebizitza, garaje eta trasteleku kaltetuak izan ziren.

Edozein zine izar baino orri gehiago bete dituzte Gobela ibaiko lanek azken hilabeteotan. Maiatzaren 26an bildu ziren Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzako eta Uren sailburuordea eta Imanol Landa Getxoko alkatea; *“esperantzaz baina, zalantza guztiak argitu barik”* urten zen Landa bileratik.

Handik bi astera, ekainaren 9an, Udalak lanak gelditu behar izan zituen Bizkaiko Foru Aldundiaren aginduz. Aldundiko Nekazaritza Sailak, Gobelan bizi den eta abuztua bitartean ugalketa garaian dagoen arrain hiruarantzarentzat arriskutsuak izan zitezkeela argudiatu zuen. URA Uraren Euskal Agentziari *“arrain hiruarantzaren gestiorako plana ez betetzea”* leporatu zion Aldundiak. Auzokideak haserre agertu ziren erabaki honegaz eta *“uholdeak egonez gero, epaite-gietara joko”* zutela adierazi zuten.

Ekainaren 14an eta URA agentziak bidalitako *“justifikazio datuak”* ontzat eman ostean, Nekazaritza sailak lanak gel-



Joan den ekainaren 16an Fadura inguruan hartutako argazkia

ditzeko agindua kendu eta urgentziaz hastea agindu zuen.

Egun bi beranduago metro koadroko 107 litro ur utzi zituzten euriteak izan ziren eta horrek, uholdeak eragin zituen,

**«Ekainaren 16an, euriak metro koadroko 107 litro ur utzi zituen; zazpi etxebizitza, bederatzi garaje eta saltoki eta trasteleku bana kaltetu ziren»**

nahiz eta ez zituzten 2008koak beste kalte eragin. Zazpi etxebizitza, bederatzi garaje, trasteleku bat eta saltoki bat kalte-zituen urak.

Alkateak auzotarrek erakutsitako *“sendotasuna eta ardura”* nabarmendu zuen eta gertatutakoa *“Eusko Jaurlaritzak*

*Gobelaren gaineko proiektu orokorra lehentasunezkoztat eta ukaezintzat jo dezan”* balio izatea espero zuela adierazi zuen. Horrez gain, uholdeetan kaltetuak izan ziren auzotarrei diru-laguntzak emateko 60.000 euroko partida prestatzeko eskatu zien zerbitzu juridikoei, behar izatekotan, diru laguntza handitu litzatekeela aurreratuz. Subentzioak *“auzotar batzuk etxeetatik ateratzeko, premiazko etxe-ko tresnak erosteko eta etxebizitzak, trastelekuak eta abar konpontzeko”* bideratuta daude. Hala ere, Gobela kaltetutakoen elkarteko auzokideak *“atsekabetuta, desengainatuta eta haserre”* agertu ziren eta zenbait etxebizitzatan ura sartzen den hirugarren aldia dela azpimarratu zuten: *“Zubiak arin batean eta edozein modutan bota zituztelako, bestela hondamendia gerta zitekeen”*. ○

# Komertzio berdea zigilua

29 saltokirentzat, jasangarriak direla egiaztatzeko



Algortako merkatuko 15 saltegiek lortu dute zigilua

**Denda jasangarri** legez egiaztatzen dituen *Komertzio Berdea* zigilua lortu dute herriko 29 saltokik. Horietatik 15, Algortako merkatuko dendak dira. Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegu eta Trebakuntza Sailak bultzatutako *Komertzio berdea arduratsua eta jasangarria* egitasmo aitzindariaren barruko ekimenetako bat da zigilua. CECOBI, Bizkaiko Merkataritzako Enpresarien Kontseilua eta Getxoko Udalaren laguntzagaz jarri da martxan.

Ekoizpen eta kontsumo-eredu arduratsuak eta jasangarriak lortzeko, tokiko saltoki txikiak eta kontsumitzaileak lagundu gura ditu Udalak egitasmo horregaz: *“Herriarrek udalerriko saltokietan erosteko ohitura hartzea eta denda txikiei lehiakortasuna hobetzen laguntzeaz gain,*

*hiriko merkataritza jardueragaz lotutako berotegi-efektuen gas-isuriak murriztu gura dira”*.

Getxogaz batera Balmaseda eta Santurtziko Udalek ere bat egin dute proiektuagaz; lehen fasean, energia aurrezpenean jarriko dute indarra. Horretarako, dendariei argiztapena hobetzeko eta kudeaketa baliabideak optimizatze-ko eskatu zaie eta bezeroei erosketak egiteko autorik ez erabiltzeko. Herriko edozein saltoki atxiki daiteke egitasmora eta zigiluak hiru urterako balio izango du.

*Getxoko Merkataritzaren Dinamizatzeko Planaren* lan ildoagaz bat egiten du ekimenak; horren barruan, beste neurri batzuk hartu dira, langileak kontratatze-ko diru laguntzak eta dendak dauden erdi-guneak barritzea, besteak beste. ○

# EZINTASUNA DUTEN LAGUNENTZAKO

## APARKATZE TXARTELAK

Ezintasun fisikoa edo psikiko larria duten Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako egoiliarrek, aparkatze txartela eskatu ahal izango dute Udaltzaingoaren egoitzako Hiritarren Arreta Gunean eta Udalerriko Hiritarren Arreta Bulegoetan. Txartela pertsona titularrek autoa gidatzen dutenean edo barruan doazenean erabili ahal izango dute. Eskuratzeko, NAN fotokopia, Minusbaliotasunaren Agiri Ofiziala eta argazki bat aurkeztu behar dira. Udaltzaingoaren egoitzako bulegoa goizeko 09:00etatik arrastiko 20:00ak arte dago zabalik.

# KIROL IKASTAROETAN PLAZA MANTENTZEKO EPEA ZABALIK

Joan barri den ikasturtean kirol ikastaroa egin eta jarraitu gura duenak, tenis eta padelekoak izan ezik, abuztuaren 31 arte izango du plaza erreserbatzeko aukera. Behin plaza erreserbatuta, irailaren 6an eta 7an egongo da hori ezeztatu edo ordutegia aldatzeko aukera. Getxo Kirolakek eskaintzen dituen ikastaroetan lehenengo aldiz izena eman gura duten abonatuak barriz, zenbaki bat jaso ahal izango dute irailaren 8a arte jendea hartzeko bulegoetan. Plazak zozketa bidez banatuko dira irailaren 9an.

# EKINTZA GEHIAGO ETA PARTE-HARTZAILEAGOAK EREAGAN

Ereaga hondartza dinamizatze-ko egitaraua irailaren 5a arte egongo da martxan. Kirol ekintzak, jolasak eta aisialdi jardueratan parte hartzeko aukera dago. Aurten, hondartzan bertan, High Tech Tamarises hotelaren aurrean jarri dute zerbitzua eta goizeko 11:00etatik 13:00etara eta arrastiko 16:00etatik 18:30era dago zabalik. Irakurri eta malabare tailerra egiteaz gain, futbola, boleibola, palak, petanka, badminton eta bestelako kirolak praktika daitezke.

# Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak

## Zurezko Egiturak

Sagastikoetxe Industriakoa  
Etxalde 2 - Pabio 11  
48330 Gortzi

Mob.: 607 148 346  
Tel.: 946 773 144

  
<http://www.etxeart.com>



**Guaytorock** > Gazteria Sailak antolatutako *II. Wanted Ideia Lehiaketako* irabazleak

“Herritar talde batek herriarentzat eginda-ko musika jaialdi anitza da *Guaytorock*”



Vanesa Manso, Nestor Gutierrez, Ricardo Perez, Ainara de la Torre, Ander Ormaetxea, Vicente Jauregi, Antxon Diaz, Carlos Rey Surman eta Iker del Pozo; *Wanted* lehiaketako irabazleak

**Gazteak, musika eta jai giroa. Hiru horiek uztartu dituzte *Gazteburue!* proiektuaren barruan *II. Wanted Ideia Lehiaketako* irabazleek. Hiru proposamen ezberdinegaz aurkeztu ziren lehiaketara; helburu berdintsuak zituztela ikusita, indarrak batu eta elkarregaz jardutea erabaki zuten. Horrela jaio zen, *Guaytorock*, irailean egingo den musika jaialdi gazte eta anitza. Estilo ezberdinetakoa musikariak pasako dira *Portu Zaharreko* eszenatokitik; herriko taldeak izango dira protagonista.**

—Zergatik erabaki zenuten *Wanted* lehiaketara aurkeztea?

—Hiru taldetan aurkeztu ginen. Alde batetik, herriko taldeak laguntzeko musika jaialdi indartsua antolatu gura genuen. Bestetik, *Kabola*musika elkarteko kideak, dirua lortzeko eta elkartea aurkezteko jaialdia egin gura genuenak. Azkenik *Thunder Clap Sound System* taldekoek, reggae musika zabalteko ekimena egin gura zuten. Hiru proiektuak bateragarriak zirela ikusita, elkartzea eta jaialdi bakarra antolatzea

erabaki genuen.

—Nolako izango da jaialdia?

—Hiru egunetako musika jaialdia izango da; *Portu Zaharrean* egin gura dugu irailan. *Guaytorock* izena izango du; Algortakooi *guayto* esaten digute eta gure buruaz barre egiteko edo aukeratu genuen izena. Gainera, jaialdiko logotipo bezala, *guayto* arraina aukeratu dugu. Karpa erraldoia egongo da eta hiru egunetan zehar estilo ezberdinetakoa musika taldeak pasako dira: punk, rock, hardcore, reggae e.a. Barikuan *Kabola*musika

elkarteko taldeak zein beste talde lokal batzuk entzun ahal izango dira. Zapatuan sound systema egiten duten lagunak etorriko dira Ingalaterratik. Domekan, egunean zehar perkusio tailerra, tortilla txapelketa eta bestelako ekintzak egingo ditugu; amaitzeko reggae emanaldia egongo da. Txarangakaz poteoak egiteko asmoa era badugu.

—Talderen bat aurreratzetik bai?

—Getxoko *DAR* eta *Ertz* eta Bilboko *Amargor* taldeakaz batera, kanpotik etorritakoak izango ditugu. Soriako *Alimaña HC* eta Ingalaterrako DJ talde

**«Portu Zaharrean estilo askotako taldeak batuko dira hiru egunetan zehar»**

bategaz harremanetan gaude. Dena den, kartela ez dago itxita oraindik.

—Zelan ikusi duzue *Wanted* lehiaketa?

—Ideia polita dela uste dut; beste taldeakaz batu eta gauzak komunean jartzeko aukera ematen du. Besteen proposamenakaz asko ikasten da. Buruan ideia bat daukan jendea aurkeztera animatuko genuke; aurrera atera daiteke.

—Musika munduan mugitzen zareten jendea izanda, zelan ikusten dituzue herriko musika taldeak?

—Kalitate handia dago, harrobi ederra, baina doan jotzeko leku publikoak falta dira: tabernak, lokalak e.a. Gaztetzeeetan eta doan jotzeko aukera ematen diguten lekuetan mugitzen gara.

—Zelan animatuko zenukete jendea *Guaytorock*-era hurrera dadin?

—Herritar talde batek herriarentzat egindako jaialdia da; boluntarioen laguntza ezinbestekoa izan dugu dena antolatzeko. Herriko musika taldeak ezagutu eta ondo pasatzeko aukera polita da. ○

# Jazz zirkuituari hasiera

Getxoko Nazioarteko Jazzaldia **goi mailako musikariak** ekarriko ditu hilaren **1etik 5era**



Dave Douglasen boskoteak joko du Jazzaldian

**Euskadiko jazz zirkuitua** zabalduko du uztailaren 1etik 5era Getxoko XXXIV. Nazioarteko Jazzaldia. Beste behin ere, nazioarteko artista ospetsuak pasako dira Biotz Alaiko eszenatokitik. Lehiaketan parte hartuko duten eta egunero emanaldiak zabalduko dituzten Finlandia, Italia, Espainia eta Poloniako taldeakaz batera, Charles Lloyd saxofoi jotzaile beteranoa, Jerry Gonzalez eta Fort Apache banda mitikoa, Dave Douglasen boskotea eta Dee dee Bridgewater abeslari ospetsua ikusi ahal izango dira. Azken egunean, jaialdiari amaiera biribila emango dio David Sanborn

saxofoi-jotzaileak. Emanaldi guztiak gaueko 21:00etatik aurrera izango dira eta sarrerak BBK-ren orotarako kutxazainetan, 94 431 03 10 telefonoan, [www.bbk.es](http://www.bbk.es) web gunean eta Algortako Kultur Etxean eskura daitezke.

Musikaz gozatu, baina gasturik egin gura ez duenak, Tellagorri plazan izango du aukera. Old Bilbao Traditional Band, Leioa Big Band, Mit4spiel5, Mikel Bikandi quartet eta Gianni Gagliardi entzun ahal izango dira Jazzaldiak irautean duen bitartean, arrastiko 19:00etatik aurrera. Gainera, Algortako Piper's Irish Pubean Jam saioak egingo dituzte. ○

## SOZIAL HITZ EKIMENEAN PARTE HARTZEKO DEIA

Urriaren 15etik 17ra *Sozial Hitz* ekimenaren hirugarren edizioa egingo da Getxon. Harresiak Apurtuz, etorkinakaz behar egiten duten GKEen Koordinakundeak antolatutako ekimenak, eragile sozialen arteko elkarriketa bultzatu gura du, atzerriartasunari eta immigrazioari buruzko gaiak jorratuz. Hiru egunetan zehar, kultur eta kirol ekintzetan parte hartzeko aukera ere egongo da. Ekimenaren bultzatzaileek, deialdi zabala egin diote herriko elkarte, erakunde zein banakoei parte har dezaten. Izena eman edo ekimenari buruzko informazio gehiago gura duenak, [www.harresiak.org/sozialhitz](http://www.harresiak.org/sozialhitz) helbidean aurkituko du.

## UDALBILTZA AUZIARI BURUZKO HITZALDIA 7AN

Uztailaren 15ean Espainiako Entzutegi Nazionean hasiko den Udalbiltza Euskal Herriko Udala eta Udala Hautetsien Biltzarren kontrako epaiketa salatzeko eta epaituen absoluzioa eskatzeko, plataforma sortu barri dute Getxoko zenbait eragilek; politika, euskara eta kultura munduko zenbait elkarte eta eragilek egin du bat plataformagaz. Uztailaren 7rako, epaiketari buruzko hitzaldi informatiboa antolatu dute, arrastiko 19:30erako Aldai Patronatuan; 10ean aldiz, elkartasun ekitaldia egingo dute 12etan Kasino plazan. Horrez gain, plataforman parte hartzera deitu dituzte Getxoko herritar zein eragileak. Horretarako, astelehenero, arrastiko 19:00etan Villamonteko Kultur Etxean egiten diren bilera irekietara hurreratzea baino ez dago.

## PORTU ZAHARREKO JAIETARAKO KARTELA

Abian da abuztuaren 12tik 15era ospatuko diren *Portu Zaharreko* Jaietarako kartela diseinatzeko lehiaketa. Lanak Algortako Kultur Etxean entregatu behar dira uztailaren 12a baino lehen. Irabazlearen izena hilaren 15ean jakinaraziko da; 300 euro eroango ditu; 6 kartel jarriko dira ikusgai *Portu Zaharrean* 12tik aurrera.



libros y letra pequeña

Basagoiti etorbidea 59  
(Tellagorri plaza)  
48991 ALGORTA  
Tf. 94 491 14 12  
[lagusana@lagusana.net](mailto:lagusana@lagusana.net)



**Kontxa Elorza eta Laurita Siles** > *Love me tender* erakusketa

“Artistek ez dute inposatu diskurtsorik, irakurketa librerako bidea zabalik utzi dute”

**EHUko Arte Ederretako bost ikasleren lanak batzen ditu *Love me tender* erakusketak: Noelia Gallardo, Zuhar Iruretagoiena, Sahatsa Jauregi, Rosa Parma eta Laurita Siles (L). Conchi Elorza (C) irakasleak koordinatu du; azken biakaz berba egin dugu.**

—Zer dela eta egin duzue erakusketa?  
— (C) Bosten doktoretzakaz harremana dauka. Gure alorrean, lan teorikoa eta praktikoa lotuta daude eta erakustea interesgarri deritzot. Piezen arteko elkarrizketa koherenteena irudika zezaketen bost pertsona hauen lanek.  
—Zertan datza?

—(L) *Love me tender* da abiapuntua, bakoitzak gure bidea hartu dugu ondoren. Gaia hankaz gora jarri dugu, batzuk musikaren bitartez, besteek irudi edo argazkien bitartez.

—(C) Bakoitzak bere ikuspentua eman behar zion gai komun bati, eta oso lan desberdinak sortu dituzte. Oso interesgarria da ez dutela inposatu diskurtsorik, ikusleen irakurketa librerako bidea zabalik utzi dute. Ikusleek bere barruan bilatu beharko dute lanaren muina ezagutzeko. Halere, egile bakoitzak bere ikuspentua eman du, Lauritak konta dezake berea.



Elorza, Siles eta gainontzeko artistak, erakusketaren inaugurazioan

—(L) Bideoak, argazkiak eta marrazkiak erakutsi ditut. Tesinan ikertzen nabil folklorearen erabilera arte garaikidean, baita Andaluziaren eta Euskal Herriaren arteko lotura eremu horretan, malagarra naiz eta. *Love me tender* abestiaren kontzeptua eremu horretara eraman dut. Irakurketa asko dauka, bakoitzak berea egin dezan.  
—(C) Horregatik ez ditugu lanak testuz lagundu, bakoitzak, bere esperientzietatik abiatuta bila dezan lan horietan sartzeko

bidea. Halere, artista bakoitzaren ibilbidea azaltzen duen dokumentazioa osatu dugu, euren lana kokatzeko, babesteko eta ikusleei ulertzen laguntzeko. Hortik aurrera, bakoitzak bila dezala lanak harremana egiteko modua.  
—Ikasleen lanak zabaltzeko garrantzitsuak dira horrelako egitasmoak?  
—(C) Bai, normalean gela barruko lanak ikus daitezen eta eremu publikoan bizi daitezen, izan ere, hori baitute xede. ○

**Pinuetako** parkinean tokia eska daiteke **uztailaren 15era arte**; hil amaieran zozketatuko dituzte 387 tokiak



Pinueta, Lamiako eta Ibaiondo auzoetako bizilagunek daukate lehentasuna

**Uztailaren 15era arte** izena eman daiteke Pinueta auzoko aparkalekuan tokia eskuratzeko. Gaztelubide kalean eraikitzen dabil parkina Viuda de Sainz S.A. enpresa eta 387 toki izango ditu.

Uztailaren amaieran, eskaera guztiak batu ondoren egingo du zozketa publikoa Udalak, Sakoneta kiroldegian. Apuntatzeko aurretiko hitzordua eskatu behar da, 94 435 60 90 telefonora hots eginez.

Aparkalekuak jabetzan esleituکو dituzte eta lehentasuna izango dute Pinueta, Lamiako eta Ibaiondo auzoetako bizilagunek. Tokien prezioa aldakorra da, solairuaren arabera. Horrela, lehenengo solairukoek 27.118,64 euro balio-

ko dute, bigarrenekoek 25.423,73; hiru-garrenekoek 24.575'27; eta laugarrenekoek, 23.728,81. Kopuru horiei BEZ gehitu behar zaie.

Eskaera egiteko errolda agiria aurkeztu behar dute leioztarrek. Elbarrituek, gainera, Europar Minusbalio Txartela ere aurkeztu beharko dute, egokitutako tokia eskuratu gura izanez gero.

Udalak milioi bi euro inbertitu du parkina egiteko. Egitasmo honegaz, Pinueta auzoa hobetu gura du: “*beharrezkoa da autoak gutxitzea eta eraberritzeak egitea, kaleak eta plazak herritarrentzako egokiagoak izan daitezen, eta eurek erabiltzeko eta oinezkoek gozatzeko guneak irabaz daitezen*”. ○

**LEIOA BIG BAND GETXO JAZZ-EN HILAREN 2AN**

Modan dago azken aldian Leioa Big Band orkestra; izan ere, musikari ezagunakaz hainbat kolaborazio egin ostean, Getxo Jazz jaialdian joko dute uztailaren 2an, barikuan. Algortako Tellagorri plazan arituko dira *Hirugarren milurtekoa* sailaren barruan, 19:00etatik aurrera eta doan. Getxo Jazz uztailaren 1etik 5era izango da Algorta auzoan, Tellagorri eta Biotz Alai plazetan. Charles Lloyd New Quartet, Jerry Gonzalez & Fort Apache Band, Dave Douglas Quintet, Dee Dee Bridgewater eta David Sanborn Triok joko dute, besteak beste. Gainera, auzoan zehar kalejiran ibiliko da Broken Brothers Brass Band, *jam sessions* saioak egingo dituzte Piper's Irish Pub-en eta Fernando Barcenaren argazkiak erakutsiko dituzte Satistegi Kafean, azken hori uztailaren 12ra arte.

**EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK**

Udalaren Euskara Zerbitzuak euskara ikasteko diru-laguntzak emango ditu aurren ere, eta horiek lortzeko eskaerak aurkezteko uztailaren 9ra arte. Urtero legez, Euskara Zerbitzuaren bulegoan egin behar dira (Jose Ramon Aketxe plaza 11) 09:00etatik 13:30era, edota 946072576 telefonora hots eginez.

Informazio gehiago: [www.leioa.net](http://www.leioa.net)

**LOREZAINNTZA PEOI IZATEKO LAN-POLTSA**

Behargintzak lorezaintzako peoien lan-poltsa ireki du, “*hutsik geratzen diren lanpostuak aldi baterako betetzeko*”. Aukeratuko dituzten langileek, zehazki, aurreikusibako lan beharrei erantzungo diete. Deialdiko oinarriak eskura daukazu Udalaren webgunean ([www.leioa.net](http://www.leioa.net)) eta Behargintzako bulegoan (Mendibile kaleko 3an). Gainera, 94 400 41 95 telefonora hots egin edota [behargintza@leioa.net](mailto:behargintza@leioa.net) helbidera mezua bidal dezakezu informazio gehiago eskatzeko.

**udondo**  
taberna  
eguneko menua eta afariak  
Lehendakari Agirre 2  
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

**ERROTULOAK**  
**ERA GUZTIETAKO ERROTULUAK eta INPRESIO DIGITALAK**  
egiten ditugu  
e-mail: [hirutab@euskalnet.net](mailto:hirutab@euskalnet.net)  
Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

KUMEk dimentsio berdea inauguratu du:  
**Maskotentzako denda ekologikoa.**  
Hurbil zaitetz: KUME ERANDIO, Itsasadarreko Errepidean Erandio eta Astrabudua artean.  
**KUME BERDEA. DENDA EKOLOGIKOA!!**  
Rivera de Axpe 4 ERANDIO Tf. 944 91 30 55 [www.kume.es](http://www.kume.es)



Zuriñe Arruza > Kilimiliklik elkarteko kidea

“Trukaketak oso aukera ona izango dira erandioztar gazteek europar gazteak ezagut ditzaten”

Europako gazteakaz trukaketak antolatu ditu Kilimiliklik elkarteak hirugarrenez, Udalagaz elkarlanean. Abuztuan etorriko dira Irlanda, Austria eta Letoniako gazteak erandiokoakaz bizitzera, astebetez.

—Trukaketen hirugarren urtea daukazu, zer egingo duzue?

—Aurten berezi pobreziaaren kontrako gaiagaz lotu ditugu trukaketak, interesgarria deritzogu gazteei ematea aukera ikusteko nolako egoerak bizi dituzten Europan eta munduan, baina baita beren herrian ere. Horregatik, trukaketak egin aurretik aztertuko dute nolako egoera bizi den Erandion.

—Nori zuzenduta daude?

—Erandioko 15 eta 17 urte bitarteko gazteei. Hamasei lagunek parte har dezake eta Irlanada, Letonia eta Austriako gazteak hartuko dituzte etxean, zazpi herrialde bakoitzetik. Abuztuaren 2tik 8ra bitartean etorriko dira. Ondoren, bere kontu suerta liteke erandioztarrak beren herrialdeetara joatea, baina hori euren esku dago. Izan ere, aukera ona da beste herrialdeetako gazteak ezagutzeko. —Dagoeneko hirugarren urtea da, nolako emaitza jaso duzue aurrekoetan? —Agian hobeto erantzun dezakete



2008ko irailan egin zituzten lehenbizikoz trukaketak

Udalekoek. Lehenengo urtean gazte gutxik parte hartu zuen, baina kontuan hartu behar da lehenengo urtea izanik, ez zela egitasmo ezaguna. Iaz, aldiz, askoz gazte gehiagok parte hartu zuen, eta aurten, oraindik gehiagok. Izan ere, hemen oso ondo funtzionatzen du ahoz ahokoak publikizateterako bitarteko gisa. Nik dakidanez, iazko guraso guztiek bidali zuten gutuna Udalera, horrelako esperientzia garatzeagatik eskerrak emanez. Esperientzia oso ona izan zen, bai

parte hartu zuten gazteentzako, bai harrera familientzako. Beraz, nik esango nuke arrakasta handia izaten ari dela; egiten dutenek beti errepikatu gura izaten dute, eta hori, seinale ona da.

—Eta zer egin behar dute erandioztarrrek norbait etxean hartzeko?

—Erandion erroldatuta egon, 15 eta 17 urte bitartean eduki eta ingelesez moldatu behar dute. Gazte Bulegoan izena eman behar dute uztailaren 9a baino lehen; orduan egingo dute zozketa. o

# Umeak protagonista udan

Aisialdiaren Txokoa eta **jarduerak auzoz auzo**, baita **gazteentzako piraguak** ere



2 eta 12 urte bitarteko jarduerak izango dira Altzagan, Erandiogoikoan eta Astrabuduan

**Oporretan daude** dagoeneko herriko umeak eta gazteak, baina ez da sasoia etxean sartuta ibiltzeko. Horregatik, hainbat ekimen prestatu du Udalak, udan entretenitzeko, ikasteko eta gozatzeko.

Batetik, Aisialdiaren Txokoa 2 eta 12 urte bitarteko umeentzako kultur programa garatuko dute Altzagan, Astrabuduan eta Erandio Goikoan, uztailaren 2an, 9an, 16an eta 23an, 16:30etik 20:30era. Umeak liburueta hurbilarazi eta euren irakurketa ohiturak sustatu gura dituzte. Euskarazko eta gaztelerazko materiala eskuragarri jarriko dute, liburuak trukatzeko eta tailerretan parte hartzeko auke-

ra izango dute, eta gainera, barikuetan antzerkia ikusi ahaliko dute umeek. Txokoaz gainera, puzgarriak eta tailerrak izango dira auzootan uztailan eta irailan; datak auzoaren arabekoak dira, Udalaren webgunean topa ditzakezu, hileko agendaren barruan. Kalean zinea ere ikusi ahaliko da barikuetan.

Bestetik, gazteak piraguan doan ibili ahaliko dira itsasadarrean, irailera arteko asteburuetan, 10:00etatik 14:00etara. Altzagako kaitik hasi ohi dira ibilbideak, beti ere RK Abentura elkarteko begiraleek zainduta. Beraiek jarriko dute beharrezko material guztia parte-hartzaileen eskura. o

## ARRIAGAKO JAIAK

### UZTAILAREN 2TIK 4RA

Jairik jai dabil Erandio ekainetik, lotu barik, izan ere, auzo mordo dago eta guztiek daukate beren jaiak, nola ez! Asteburu honetan Arriagakoen txanda izango da eta ez dira atzean lotuko. Berbenak, jolasak eta txapelketak ez dira faltako, hartu arnasa eta aurrera!

## JAIETARAKO DIRUA

### BATZEN ASTRABUDUAN

Auzoko koadrilek osatu jai batzordeak diru-bilketa hasi du Astrabuduko jaietarako. Izan ere, “*krisia dela eta*”, Udalak 42.000 euroko diru-laguntza eman dio jaiok antolatzeke, iaz baino 900 euro gutxiago; halere, egitarau erakargarria prestatu asmoz, giltzakoak saltzen dabilta eta itsulapikoak jarri dituzte. Abuztuaren 5etik 10era ospatuko dituzte jaiak.

## KUKULARRA

### OINEZKOENTZAT

Udan esleितuko ditu Udalak Kukularrako mendi-hegalaren zati bat hobetzeko lanak. Oinezkoentzako atundu gura dute, dagoen malda handia leunduz. Umeentzako parkea zein eraikin soziala ere egingo dituzte, eta errepidearen alboetako espaloiak zabalduko dituzte. Guztira 1.491.230 euro inbertituko dute urte bian. Bestalde, dagoeneko kokatu dituzte igogailu bi Lutxanan. Metro geltokira sartzea erraztu eta auzoko alde biak lotu gura izan dituzte horrela.

JOHN GARATE BAYO  
Nagurko Erandioa 5  
T: 491 14 57  
48990 NAGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Anguruen etorb. 4B  
(barria, Jola Merdola) T: 493 51 57  
48990 GETXO

Luberri Basolanak, SL  
Arpe ibaiertza 26A  
beheko solairua B12 lokala  
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38  
Tf :94 467 17 13  
Faxa: 94 467 42 41  
luberri@euskalnet.net  
www.luberri.biz

- Soropila ezartzea  
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartze lanak, ingurumeneko lanak eta enite lanak.
- Soropila zaintzea eta mantentzea  
Moztea, ureztatzea, ingurutzeko, egurastea, aratzea eta destrinkotze berreskuratzea, soropila gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.
- Inausketak  
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaizka apalgarriak inausketarako erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

Etxebizitetarako igogailuak  
Eskailera igogailuak  
Plataformak

Arazoei agur... Tf. 902 54 08 54

www.arlan.biz



HERRIKO NAGUSIAK SASOIAN

Pertsona nagusientzako gimnasia tresnak jarri dituzte udaletxe ondoan eta kalean, “*ariketa fisikoa egiteko eta bihotz, birika eta muskuluak indartzeko egokiak*”. Gainera, luzatze-ariketak egiteko eta gorputzaren koordinazio orokorra lantzeko ere “*aproposak*” ei dira tresnok. Hiru aparatu dira, pedalen bidez gorputzaren beheko gorputz-adarrak lantzeko bata eta goiko gorputz-adarrak lantzeko beste biak. Udaletxe ondoko eremu batean kokatu dituzte, “*igarobide puntua delako eta pertsona askoren joan-etorri tokia delako*”. Baina eskaria handitzekotan, etorkizunean udaleko beste gune batzuetan ere antzeko aparatuak jar daitezkeela jakinarazi du Udalak. Beraz, sasoiaren egoteko aitzakiarik ez dago!

SURFEAN BAI, BAINA EUSKARAZ MESEDEZ

Sopeloztarren kirol kuttuna da surfa, eta horretaz jakitun, surf ikastaroak euskaraz antolatu ditu Aitxu euskara elkarteak. Dagoeneko ekaina osoa daramate martxan baina uztailan, oraindik orain, badago aukera parte hartzeko. Hilaren 5etik 9ra bitartean izango dira ikastaroak, goizez zein arrastiz. Parte hartzeko 10 urtetik gora eduki behar da, eta 50 euro ordaindu. Telefono bidez eman behar da izena, 675 591 266 zenbakira deituz.

Informazio gehiago: <http://aitxu.blogspot.com>

GR 280 IBILBIDEAREN GIDA ESKURAGARRI

Larrabasterrako turismo bulegoan eros daiteke GR 280 ibilbideari buruzko xehetasunak eskaintzen dituen gida, 29 euroren truke. Uribe Kosta osoa zeharkatzen du ibilbideak, zazpi etapa ditu eta lauzpabost ordu behar dira bakoitza burutzeko. ADR Jata-Ondo LGE elkarteak egin du, herriko Turismo Zerbitzuaren laguntzagaz.

Karmen jaiek lekukoa

hartuko diete sanpedroei, Larrabasterran; uztailaren 15etik 18ra ospatuko dituzte



Baron Rojo taldeak joko du 17an

**Arnasa hartzeko** pare bat asteko tar-tea baino ez dago, baina nahikoa izango da parrandarako eta jairako indarrak hartzeko. Larrabasterrak hartuko dioe-lekukoa Sopelako San Pedro jaiei uztai-laren 15etik 18ra, Karmen jaiak ospa-tzeko.

Aurrekoetan legez, musikaz eta eki-taldiz bete dute egitaraua. Eguena 15ean ekingo diete ospakizunei kale ikuskizunagaz, Urgitxeta plazan. Umore eta Habanera jaialdiak izango dira ondoren. Txosnetan Davelyu, El Niño Katana eta Ze esatek! musika taldeek

berotuko dituzte bazterrak.

Barikuan, barriz, Karmen egunean, 70eko urteetako musika jaialdia egingo dute Urgitxetan eta Atsekabek eta Los Zopilotes Txirriaos taldeek joko dute txosnetan. Zapatuan izango da herri kiroletarako tar-tea eta spinning mara-toia. Gainera, kontzertua eskainiko dute Boys of Birlek eta Baron Rojok, Urgitxetan. Domekarako utzi dituzte marmitako txapelketa eta bilbainadak. Gainera, goizero izango dira umeentza-ko jolasak Urgitxetan. Denetarako beta-rik izango al duzu? ○

**Txetxu Murillo** > Davelyu musika taldeko kidea

“Larrabasterran jotzeko ilusio eta gogo handia daukagu”



Uztailaren 15ean joko dute Larrabasterrako jaietan, 23:00etan, txosnetan

**Larrabasterrako** Karmen jaietan joko du herriko *Davelyu* metal taldeak. Txetxu Murillok hogeit urtetik gora daroa taldean gitarra jotzen. Bilakaera horretan hainbat izen hartu ditu taldeak eta lagun askok parte hartu dute.

—Karmen jaietan joko duzue, herriko taldeen artean.

—Ni Sopelakoa naiz, eta Dilema taldea sortu zenean, orain 22 urte, kide guztiak ginen sopeloztarrak. Gerora bilakatuz eta kideak barrituz joan da: F.D.T. taldearen proiektuagaz 14 urte ibili ginen, eta lau urteko geldialdiaren ondoren, Davelyu proiektua sortu genuen.

—Metal taldea zarete.

—Kritikak ez datoz bat gure estiloa definitzerako orduan, baina metala da. Halere, guztiek diote estilo oso pertsonala daukagula, eta egia esan, inori ez kopiatzen saiatzen gara. Gustukoa egiten dugu, ea nolako soinua daukan.

—Eta lau urteko geldialdiaren ostean,

grabatzeko asmoa duzue?

—Lau abesti grabatu genituen batu gine-nean, baina dagoeneko askoz gehiago dauzkagu eta udaberrian sartu gura dugu grabatzen, abendura arte emanaldiz josi-ta baitaukagu egutegia.

—Zertan da desberdin duela hogeit urte eta egun jotzea?

—Gaur egun publizitaterako askoz bitar-teko gehiago dago, emanaldiak lortzea asko errazten du. Lehen ahoz aho eman behar genuen ezagutzera.

«Egun iragartzeko bitarteko gehiago dago, emanaldiak lortzea asko errazten du»

—Eta orain herrian joko duzue, urduri?

—Duela urte batzuk ere jo genuen Larrabasterran eta oroitzapen oso onak dauzkagu: soinua ona, jende asko hurbil-du zen eta giro oso ona sortu zen. Proiektu barriagaz jotzeko ilusio handia daukagu, gogoz gabiltza jendearen eran-tzuna eta emaitza ikusteko. ○



# EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,  
etxera eroango dizugu  
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78  
Tf. 94 491 27 34

## DIDAK hamilton

### IDIOMAS

#### Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.  
Tf. 94 676 30 12  
[info@didakhamilton.com](mailto:info@didakhamilton.com)

## 4 bide pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

## ANDER DEVNA

### IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA  
Tf. 94 676 02 66  
Email: [sopela@ikastola.net](mailto:sopela@ikastola.net)



INDUSTRIA LUR GEHIAGO  
HAPO BARRIAGAZ

Hirigintzako Antolaketarako Plangintza Orokor barriak (HAPO) industriarako 75.000 metro koadro gehiago aireikusi ditu, Ipar Arabeta eta Areneko industrialdeen artean. Horretarako, Landaideko lurren kalifikazioa aldatuko dute, azpiegitura biak batuz. Gainera, gune barrirako sarbideak ere hobetuko dituzte eta Uribe Kostako korridorera heltzeko bide gisa ere erabiliko dute.

BIDEGORRIA  
KORRIDORERA ARTE

Intxaurraga zeharkatzen duen bidegorritik Eroski merkatalgunera arte iritsi ahal izango da. Bidegorriaren tarte hori aurrekoaren jarraipena da, beraz, Berangoko erdigunetik (Sabino Arana kalea) Uribe Kostako korridoreraino joan ahalko da bizikletaz. Hango biribilgunetik urteten da hondartzarako bidea. Udalak 30.000 euro inbertitu du egitasmoan.

HITZARMENA VICENTE  
FERRER ELKARTEAGAZ

Berangoko Udalak Vicente Ferrer elkarteagaz hitzarmena barritu du, hiru urterako. Urtero 10.000 euro emango dio elkarteari Andhra Pradeshen (India) garatzen duen egitasmoa sustatzeko. Udala 2004tik dabil elkarteagaz elkarlanean. Tarte horretan etxebizitzak eraikitzeko edota emakumeen abeltzaintza negozio txikiak garatzeko egitasmoak bultzatu ditu, besteak beste.

Garaizar

barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 600 952 597 • [regaraizar@euskalnet.net](mailto:regaraizar@euskalnet.net)

Eliza kalea 1 • ALGORTA



**AIXERROTA BHI**

- TEKNOLOGIKOA
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

**DERRIGORREZKO BIGARRREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK**

**ZEREGINAK IKASTEN GELA (A ETA D EREDUAK)**



INFORMAZIO GEHIAGO: [WWW.AIXERROTABHI.NET](http://WWW.AIXERROTABHI.NET) / Tf. 94 491 17 86

Eraikin geotermikoa  
Sistema geotermikoa erabiliko du **Santa Anako**  
eraikin kulturalak **temperatura erregulatzeko**

Azaroan bukatu gura dituzte lanak eta 2011 hasieran zabaldu

**Santa Ana auzoko** eraikin kulturalak sistema geotermikoa erabiliko du temperatura erregulatzeko. Energia geotermikoak lurra- ren temperatura baliatzen du eraikina klima- tizatzeke, beraz, neguan lurraren berotasuna baliatuko du, eta udan, freskotasuna.

Horretarako, zazpi sonda sartuko dituz- te lurrazpitik 150 metrora, eta bero-ponpen bidez aterako dute beroa, ondoren eraikina- ren temperatura erregulatzeko. Finean, “*ener- gia naturala*” erabili gura dute, eraikina “*ingurugiroagaz jasangarria izan dadin*”.

Lanok eraikinaren erabarritze lanen hirugarren fasearen parte dira. Fase horretan

auditorioa eta taula ere hornituko dituzte. Zola eta eserlekuak jarri, eta argiztapena zein soinua prestatuko dituzte. Auditorioak 220 lagunentzako tokia izango du, eta taulak, 55 metro koadro.

Orain arte, Berangon ez zegoen eraikinik tamaina erdiko ikuskizunak egiteko (zinea, antzerkia, kontzertuak...). Eraikin barriagaz leku egin gura diete maila horretako ekital- diei.

Horietaz gain, eraikinak herriko elkar- te-entzako gelak, gimnasioa eta garajeak ere izango ditu. Azaroan bukatu gura dituzte lanak eta 2011 hasieran zabaldu. ○

[lemoiz]

Txapel Reggae Armintza 2010 > XX. urteurrena

Uztailaren 17an ospatuko da  
Armintzako reggae jaialdi ezaguna

Souleyman abeslari frantziarra

**20 urte beteko ditu** aurtan Armintzako *Txapel Reggae* jaialdiak. Jai Batzordeak 1990ean jarri zuen martxan ekimena, herriko ekintza kulturalak sustatzeko asmoz. Baina, kostaldeko herrixka “*jamaikar kultura eta Euskal Herriko re- ggae musikaren bazterra*” bilakatzen duen musika-jaialdi erraldoiak, indarra hartu du eta, gaur egun, “*Estatu mailan, reggae jaialdi garrantzitsuenen artean*” koka dai- teke. Potato, Ke Rule, Akatz, The Toasters eta New York Jazz Ska Esemble talde ezagunak pasa dira besteak beste txapel Reggae-ko eszenatokitik. Antola- tzaileek argi daukate goi mailako musi- kariez gain, “*inguru arrantzaleak, edo- zein pertsonari zabalik dagoen jaialdia izateak eta doakoa izateak*” egiten dutela “*Txapel Reggae parebako*”.

2010eko edizioa uztailaren 17an ospatuko da. Gaueko kontzertuez gain, doako ekintzak egingo dituzte egunean

zehar. Goizeko 11:00etan hasiko da jaialdia skate ikastaro eta txapelketagaz. 12:30ean *Orabai* perkusio taldearen gidaritzapean, “*rasta poteoa*” egingo dute Armintzako tabernetan zehar. Arrastian, afrikar dantzen txanda helduko da. 18:00etatik aurrera *Sapali* taldearen musikaren erritmora, afrikar dantzak

«Skate eta afrikar dan-  
tzen ikastaroak eta era-  
kustaldiak egongo dira»

ikasteko eta ikusteko aukera egongo da. Gaueko 22:00etatik goizaldeko 06:00ak arte, nazioarteko zein Euskal Herriko musikariak igoko dira taula gai- nera: Yaniss Odua (Frantzia), Seyni and Yeliba (Guinea), Souleyman & The Yala Crew (Frantzia), Chulito Camacho (Espainia), Laina Ankh (Frantzia), Bad Sound System (Euskal Herria) eta Bilbomatiks (Euskal Herria). ○



Torreñe 2

48990 ALGORTA

94 491 12 71

[iratalgorta@gmail.com](mailto:iratalgorta@gmail.com)

OPARIAK MODA GAZTEA

**OSABIDE HOR-TZ KLINIKA**

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Onkologia
- Periodontzia
- PADI

Bideburu 27, beheko eskuina

ALGORTA

94 430 76 96



**BASTARTENA**



**URDULIZ**

Teléfono: 948 761 128



**Taberna Berri**

Sartikobaso 4 - ALGORTA

Tf. 94 430 64 93



**TXIBERRI**

**edantokia**

*frontoi partikularra*

Aita Gotzon 4, URDULIZ

Tf. 94 676 07 15

22UK

UK23



KIROL EGUAZTENAK  
UZTAILAN LEMOIZEN

Lemoizko Kultur Etxeak kirol ekintzak antolatu ditu uztailleko eguaztenetarako. 6 eta 14 urte bitarteko umeei bideratuta daude, nahiz eta, interesatuta egonez gero, adin tarte horretan ez daudenentzat ere zabalik egongo diren. Goizeko 10:30etik 13:30era egingo dituzte ekintzak. Hilaren 7an senderismoagaz hasiko dira; 14 eta 28an piraguaren txanda izango da. 21ean aldiz, herri kiroletan jarduteko aukera egongo da.

ANTZERKI TAILERREAN  
IZEN EMATEA PLENTZIAN

Goñi Portalek emakumeentzako antzerki tailerra eskainiko du 2010-11 ikasturtean. Norbere gorputza ezagutzen eta pertsonaia eraikitzen irakatsiko dute, besteak beste. Oraindik ez dute tailerra zein egunetan eta ordutan izango den zehaztu. Ikastaroa guztiz praktikoa izango da eta izena emateko baldintza bakarra gutxienez 12 urte izatea da. Interesatuak Plentziako Kultur Etxean galdetu behar dute.

IRAUNKORTASUN  
ADIERAZLEAK WEB-EAN

Urdulizko Udaleko web orrian (www.urdu-liz.net), tokiko iraunkortasun adierazleen datuak jarri dituzte ikusgai. MUGI21 tresna erabiliz egin dute azterketa iraunkortasun joerak ezagutu, ebaluatu eta hiritarrei erakusteko. Uraren eta energiaren kontsumoaren bilakaera aztertu dute, besteak beste.

PLENTZIA

XIX. mendea protagonista historia jardunaldietan



XIX. mendea izango da III. Plentziako tokiko historiari buruzko jardunaldien protagonista

**Eusko Ikaskuntzaren** eta Plentziako Udalaren arteko elkarlanari esker, Plentziako tokiko historiari buruzko III. jardunaldiak egingo dira Goñi Portal Kultur Etxean (Kale barria 2), hilaren 7tik 9ra. Aurten XIX. mendea izango dute hizpide hiru egunetan zehar entzun ahal izango diren sei hitzaldietan. Antolatzaileek aurreratutakoaren arabera, *“Antzina-ko Erregimenetik Liberalismorako jauzi traumatikoa eta odoltsua”* bizi izan zuen *“Plentziako portuak eta Uribeko eskualde-*

*ak, Euskal Herri osoak bezala”*.

Eguaztenean, Udaleko eta Eusko Ikaskuntzako aurkezpenen ostean *“Plentziako herriko miliziak Lehen Gerra Zibilean, 1832-1839. Emakumeak eta Liberalismoa”* hitzaldia eskainiko du David Crestelok. Ondoren gerra karlisten inguruan jardungo da Joseba Agirreazkuenaga. Eguenean, itsasoa eta nabigazioa izango da hitzaldietako protagonista; barikuan barriz, demografia eta hirigintza. o

Eka. 28 - Uzt. 14

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [agendauk@aldizkaria.biz](mailto:agendauk@aldizkaria.biz) • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

PLENTZIA

► **Patchwork tailerrak.** Goñi Portalen. Ekainaren 30era arte.

GORLIZ

► **Begoña Artaberen arte lanak.** Uztailaren 9tik 16ra. Erakustaretoan, 19:00etatik 21:00etara.

GETXO

► **Antzezaleak.** Algortako erakustaretoan, uztailaren 26ra arte.

MUSIKA

GETXO

► **Nazioarteko Jazzaldia.** Algortako Biotz Alai eta Tellagorri plazetan. Uztailaren 1etik 5era.

SOPELANA

► **Lagun Artea abesbatza.** Kurtzio Kultur Etxean. Uztailaren 2an, 19:00etan.

GORLIZ

► **Miguel Salvador Projet, jazz kontzertua.** Elizan. Uztailaren 9an, 20:30ean.  
► **Lirain abesbatza, txistulari banda eta BLEO Orkestra.** Elizan. Uztailaren 10ean, 20:00etan.

ZINEMA

PLENTZIA

► **Sagarren denbora filmaren aurkezpena.** Goñi Portalen. Uztailaren 1ean, 19:30ean.

ERANDIO

► **Alizia lurralde miragarrian.** Irailaren 23a plazan, Uztailaren 2an, 22:00etan. Kalean eta doan.



Maialen Lujanbio txapeldunak ere abestuko du

► **Bertsolaritza**

**Bertso-saio mundiala**

Dagoeneko irrikan egongo zara urteko bertso-saiorik bereziena eta dibertigarriena ikusteko. Zaude lasai, gutxi falta da eta. Uztailaren 14an izango da, eguaztena, 21:00etan, Algortako Biotz Alai plazan. Ohi legez, lehen mailako bertsolariek abestuko dute: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Fredi Paia, Xabi Paya, Andoni Egaña eta Jon Maia; honezkero dardarka ibiliko dira Algortako Bertsolari Eskolakoek zer sorpresa prestatuko. Aitzol de Castrok emango dizkie gaiak, baina, zertaz mozorrotuko dituzte? Nor agertuko da? Zer gai bitxiri buruz kantatu beharko dute? Jakingura piztu zaizu, ezta? Bada, uztailaren 14an saiora hurreratu beharko duzu asetzeko.

• **Non:** Algortako Biotz Alai plazan • **Noiz:** Uztailaren 14an, 21:00etan

GETXO

► **Gaurik laburrena.** Algortako Biotz Alai plazan. Uztailaren 6an eta 7an, 21:00etan. Doan.  
► **Udako zinea.** Algortako Biotz Alai plazan. Uztailaren 8an eta 9an, 22:00etan. Doan.

ANTZERKIA

SOPELANA

► *Lo que inventan las mujeres* eta

*El agua milagrosa.* Kurtzio Kultur Etxean. Uztailaren 3an, 19:30ean.

BESTEAK

URDULIZ

► **Jaietarako kamiseta lehiaketa.** Aurkezteko azken eguna: ekainak 30, Kultur Etxean.

GETXO

► **San Lorentzo azokan izen-ematea.** Uztailaren 3ra arte.

SOPELANA

► **Kepa Deuna esku-pilota txapelketako finalak.** Pilotalekuan. Uztailaren 3an, 11:30ean.  
► **Elkarteen surf txapelketa.** Barinatxe hondartzan. Uztailaren 10ean eta 11n, 10:00etan.

GORLIZ

► **Aratz Dantza Taldearen XXX.urteurreneko jaialdia.** Uztailaren 10ean, egun osoan zehar.  
► **Hitzaldia: Euskal kantu liriko berriak.** Udaletxean. Uztailaren 14an, 20:00etan.

LEMOIZ

► **Piraguan urteerak 6 eta 14 urte bitarteko umeentzat.** Armintzako portuan. Uztailaren 14an, 10:30etik 13:30era. 40 euro.

ERANDIO

► **Sukaldaritza eta eskulan ikastaroak.** Bekoa ikastetxean eta antzinako Correosen. Uztailan zehar. Informazio gehiago: Gazte Informazio Bulegoa.  
► **Bisita gidatuak itsasadarretik.** Altzagako kaitik. Uztailaren 4an eta 18an, 11:30ean.  
► **Aisialdiaren Txokoa umeentzat.** Altzagan, Astrabuduan eta Erandio Goikoan. Uztailaren 30era arte, 16:30etik 20:30era.  
► **Udan kirolean hasteko haur programa.** Altzagako Udal Kiroldegian. Uztailaren 30era arte.

PLENTZIA

► **Plentziako tokiko historia III. jardunaldiak.** Goñi Portalen, uztailaren 7tik 9ra, 19:00etan.  
► **Hitzaldia: Lemoizko zentral nuklearra.** Goñi Portalen. Uztailaren 2an, 19:30ean.  
► **Piraguismo ikastaroak.** Irailera arte. izena emateko: 664 49 59 99/ plentziapiragualdea@gmail.com.



[albuma]




## 3,2,1... Blues

Jaialdien denboraldiari hasiera eman zien ekainaren 18an Getxoko XXII. Nazioarteko Blues Jaialdiak. Eric Sardinas, Raimundo Amador, Bettye LaVete eta Music Maker Foundationeko lagunak ikusi, eta batez ere, entzun ahal izan ziren Biotz Alaiko karpan. Publikoa ez zen falta izan hiru egunetan zehar; urteak aurrera joan eta bizkarrean zama jarri arren, bluesaren bihotza gazte dela erakutsi zuten artistek.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**







## 100 urteko Karmen,

Neguriko eliza

Mendea bete du Getxoko Neguri auzoko Karmengo elizak. Emiliano Amann arkitektoak diseinatu zuen eta Eusko Jaurlaritzak interes ondare izendatu du. Urteurrena ospatzeko hainbat ekimen abiatu dituzte Neguriko Aita Agustindarrek, *El Carmen de Neguri: cien años para recordar* liburua tarteko. Elizaren historia biltzen du horrek, planoak zein eraikitzen ari zireneko argazkiak eta guzti. Cesareo Miguelez del Río elizako Agustindar nagusiak bildu ditu eta bertatik atera dugu argazki hau. Horretaz gain, mendeurrenari buruzko erakusketa ikus daiteke elizan bertan, eta uztaileak 16 Karmengo Ama Birjinaren Egunean meza nagusia egingo dute, 12:00etan.

*El Carmen de Neguri* liburutik hartua



[berbetan]

Eduardo Galeano idazle urugaiarraren kondaira batek dio Kolonbiako Negua herriko gizon batek zeru goira igotzea lortu zuela, jaistean kontatu ei zuen handik goitik gizakion bizitzari begira “su-txikien itsasoa” ginela, hori zela Mundua, jende mordo, su-txikien itsasoa. Hori gogoan *Mar de fueguitos* elkartasunari eta gizarte mugimenduei begirako irratsaioa abiatu zuen Gorka Andracka (Armintza, 1968) kazetariak orain 10 urte. Irratsaioko lehenengo 5 urteak Radio Euskadin egin zituen, nagusiek handik alde egitera bultzatu eta azken bostetan Tas-Tas irrati libretik aireratu ditu saioko elkartasun sugarrak.

# Gorka Andracka

## suen itsasoari egurra botatzen 10 urtez

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Urteurren sasoia Tas-Tas Irratian eta baita *Mar de Fueguitos* saioan ere; zenbait ekimen prestatu duzue ospatzeko. —10 urte bete direnez *Mar de Fueguitos*-eko lehenengo saioa egin genuenetik erabaki genuen kontzertu-jaia antolatzea eta urte amaierara arteko programazio berezia prestatzea. Kontzertuaren ideia lehen Radio Euskadin eta orain Tas-Tas-en ditugun entzuleak batzeko izan da, eta ospatzeko 10 urtez egin dela saioa. Bitarte horretan aro ezberdinak bizi izan ditu sai-oak, gorabehera eta oztopoei aurre egin behar izan die, batez ere, azken aro hone-tan, irrati librean izanik, gaitzagoa delako gusturago behar egitea, edo irratiak entzuleengana heltzeko aukera edukitzea... Zailtasunen gaineratik jendea batzea eta 10 urteren ostean saiok irautea duela, entzule gehiago dituela eta gero eta irrati gehiagotan entzun daitekeela ospatzea da asmoa. Era berean, Tas-Tasek 18 urte be-te dituenek, kontzertutik batutako dirua irratia-rentzat izan dadila gura dugu; baz-kide gehiago lortzeko kanpaina egiten dabil-tza orain, diru kontutan oso txarto

dago-eta! Beraz, saioarena ospatzeaz bate-ra irratiari laguntzeko ere antolatu dugu ekimena, hortik entzuten delako *Mar de Fueguitos*, eta hein batean berari esker ere biziraun duelako. Bestalde, orain hasi eta urte amaierara arte saioan “La decada luminosa” deritzon bitartea abiarazi dugu, saioaren izenagaz hitz jokoa eginez. Hor 10 urteotan egindako hainbat alka-rrizketa barriro entzungo ditugu, berba-rako: Eduardo Gleanorena, bere istorio bati zor diolako izena saioak eta beti bere

### “Saioa Galeanoren kondaira horren eta altxamendu zapatistaren harira jaio zen”

ahotsak egiten digulako sarrera; Giocon-da Belli idazle nikaraguarrarena, Euskal Herriko taldeena: Komite Internazio-nalistak, EHNE, Mundu bat e.a. Aurten urteurrena bete(ko) duten erakundeakaz berba egiteko ere aprobetxatu gura dugu, esaterako: Recade (Kanpo-zorra Eze-zatzeko Herri Sarea), 10. urteurrena, as-kotan egon dira saioan, eta urteotako ba-

lantzea egin gura dugu, berdin Mujeres del Mundokoakaz, Paul Nicholsonegaz Via Campesinakoen eta 10 urte bete di-tuzten Munduko Jendarte Foroen ingu-ruan e.a. Hau da, azken 10 urteotaz ber-ba, balantzea egin gura dugu hainbat ko-lektibogaz, eta urteotako historiak, ipui-nak eta berreskuratu. —Gobernu Onerako Batzorde zapatis-tak alkarrizketatzeko asmoa ere baduzu. —Saioa, batetik, Galeanoaren kondaira horren harira jaio zen eta bestetik altxa-

menu zapatistaren harira ere; urteotan guztiotan ez da egon asterik ipuin zapa-tistarik edo Txiapaseko barririk entzun ez denik. Plataforma Vasca de Solidaridad con Chiapaseko lagun bidez GOBkaz (JBG) berba egin eta bizi duten egoera kontatuko digute. Orain egoera oso latza bizi dute, jazarpen paramilitar handia ja-saten dabil-tza, errepresio itzela komuni-





tateetan. Ez da alkarritzeta “handietara-ko” giro, ia eguneroko salaketez gainera ez dute ia bestelakorik esaten, ezta hedabide-ei alkarritzetarik eskaintzen ere, baina gi-txienez kontatuko digute irauten dutela eta euren burujabetzaren alde lanean segitzen dutela; guk ere horren barri emoten jarraitzen dugu, bizi dutena kontatzen, hartzen ditugula adierazten.

—**Horrelako bestelako saio berezirik?**

—Urteotan egin dugunez, hau ez da beste-a baino gehiago edo garrantzitsuagoa. Halere, hileek aurrera egin ahala ziurrenik MCTgaz lotutako kontuak prestatuko ditugu, arreta handia eskaini diogun beste ekimen bat delako, edo Palestinari begirakoak. Saioan parte hartu ohi duten kolektiboek egindako ekintzen arabera egingo ditugu ziurrenik kontutxo bereziagoak.

—**Balantzeak egiteaz jardun duzu; *Mar de Fueguitosek* ere hainbat aro izan ditu: maiztasun eta irrati-etxe aldaketak e.a.**

—Asteroko saio legez jaio zen, 10 minutukoa, Radio Euskadin, elkartasun eta gizarte mugimenduen inguruan jarduteko. Laster ordu batera luzatu zen iraupena, gero uda sasoiari egunerokoa. Egia da Radio Euskadin egondako 5 urteetan han egiten zenarekiko saio desberdina zela: gonbidatu, gaiak bideratzeko modu, edo jorratzen ziren gaiengatik e.a. Zentzu horretan zen desberdina. Nire ustez horretan zetzan Radio Euskadiko garai hartako saioaren zelanbaiteko arrakasta; Euskal Herritik beste herrien egoeraz berba egiten zelako, eta horretan geuk dugun erantzukizun, arduraz ere berba egiten hasi ginelako: Euskal Herriko eta Espainiako multinazionalak, hemengo gobernuak e.a. Aro horrek edo saioak izan zuen berezitasuna, nik uste, ezberdintasun antza hartze horri zegokion. Askotariko saioak dauden irratiari geure programa identifikatzea edo bere lekutxoaz izatea izan zen aro horretako politena; irrati handi batek, edo garai hartan handia zen edo entzule-kopuruan lehenengoa izateko lehian zebilen irrati batek eskaintzen digun jende askorengana heltzeko aukera-

gaz batera. Gero Radio Euskaditik alde egin behar izan genuen aroa heldu zen, joan ginen eta txarto, desengainaturik, batez ere enpresako zuzendaritzagaz. Bitartea laburrarazten hasi ziren, ordurako kaskarrak ziren lan-baldintza ekonomikoak murrizten, esandakoekiko presioak handiagotzen... Alde egin behar izan genuen, baina, alde egin dezakegula esan arren saioa eure-

## “Zorionez saioa Radio Euskaditik salbatu ahal izan genuen, eta handik gitxira Tas-Tasen egitea lortu”

na zelako iritziaren ezustekoa izan genuen, Radio Euskadik eskaintzen jarraituko zuela; saioa ez zen euren! Gutun piloa heldu ziren irratiari, eta nik ere salaketa jarriko nien mehatxua egin nuen... Azkenean, elkartasun gaiak lantzen dituen beste programa bat egitea erabaki zuten. Zorionez, saioa Radio Euskaditik salbatu ahal izan genuen, handik gitxira Tas-Tasen egitea lortu; lehenagotik kolaboratzen nuen bertan, Txiapasen inguruko irratsaiotxu bategaz. Hemen jarduteak badauzka abantailak: profesional, kazetari legez askeagoa naiz neuk gura legez esan eta egiteko, nagusiek honi-horri zer iritziko dioten, iragarleei zer irudituko e.a. pentsatzeak ekar lezakeen presio barik. Desabantailak ere badira: bitarteko mugatuagoak, nazioarteko deiak egiteko dirurik ez... dena da kon-

## “Hemengo... aberastasunak, enpresa publiko baina pentsaera pribatuduntik datorrenarentzat ez du preziorik”

plexuagoa. Ostera, 5 urte daroaguz eta beste irratiari adib.: Gasteizko Hala Bedi, Iruñeko Eguzki edo Tenerifeko Pimientak ere saioa igortzen dute, saretik ere jaisten dute... Beraz, apurka jendeak saioa entzuten segitzen du, eta batez ere, hone-lako elkarte-ekintza-irrati batek emoten digun askatasun sentimenduagaz eta irratiari egiten duen eta Tas-Tas lako egitasmo

baten aldeko jendea, merkatu-egitasmo, enpresa, negozio legez ikusi barik lan egiten duen jende hori ezagutzeko askatasun sentipenagaz lotzen naiz; hemen jendeak gauzak kontatu, kazetaritzan bere kabuz jardun, jendearengana hurbildu edota beste modu batean kontatu gura duelako egiten ditu bere saioak. Tas-Tasen aberastasun hori ez dago beste komunikazio en-

presetan. Komunikabide alternatiboan lan egitearen zailtasunak autogestionatua eta batzar bidezkoa izateak dituen zailtasunak dira; ostera jendearen eta ezagutzen ditugun ikusteko, kontatzeko moduen aberastasunak, enpresa publiko baina pentsaera pribatudun batetik datorren kazetariarentzat ez dauka preziorik! —**“Irrati librea” eta kazetari profesionala ez ei doaz batera. Ez da hori zure kasua.** —Tas-Tas entzutea nahikoa da konturatzeko saio asko dituela, batzuk beste irrati-enak, baina bereak asko, horietan 80tik gora lagunek parte hartzen du astero saioak aurrera eroaten. Joan den astean jakin nuen horietatik kazetaritza lizentziadun bakarra neu naizela! 18 urtez jo duen irratiari, agian soinu-kalitatez ez, baina edukietan edo jendearekiko hurbiltasunean SER

dua, alkarritzetatzeko era... karrerari esaten edo irakasten digute egiten jakin behar dugula, baina inork ez du egiten, hemen ikasten dugu. Irratia egiteko beste kontzeptu bat da, beste kazetaritza kontzeptu bat, zoritxarrez, Kazetaritza Fakultatean irakasten edo behintzat ikasten ez dena. —**Eta zer giro “su-txikiaren itsasoan”?** —Urteurrenaren kontuak prestatzen ibili

## “Norantz goaz? Arrainik ez dagoen kostarantz, arrantzalerik bako portuetarantz, bizitzarik bako herrietarantz”

naizela, beti berdina esan edo kontu berberen inguruan jarduten dudari susmoa izan dut. Zorionez, gonbidatu asko pasa da eta nire asmoa ere beti izan da euren berba egiten uztea, nik ahalik eta gi-txiaren esatea are eta ipuin, istorio, abesti gehien ipintzea. Saioak segituko du, beharrezkoa den heinean; batez ere saioa egitea gogoko eta irratiari pozik etortzen jarraitzen badut, jendea ezagutzea, alkarritzetak prestatzea niretzat ekarpena diren artean segituko du, eta Tas-Tas lako elkarte-irrati batean segituko du. Aldaketa politikoa dela eta, esan zidaten “orain Radio Euskadik nagusia aldatu duela... seguru, gura baduzu, barriro eroango zaituztela...”. Uste dut, bakoitzaren bizi eta lan proiektuagaz zerkusia izateaz gain, nagusia aldatuta ere, eta

kasu honetan ikusi da, ez dela nagusi kontua, komunikazio-kazetaritza ulertzeko modua baino, botere politikoa edo ekonomikoari lotutako, menpeko eredu dela. Behin hori ezagututa, itzultzea... Diruagatik itzul gaitezke, edo aintzatespena lortzearen... Horrelakorik behar ez badugu, ez gara itzuliko; esandakoa, hemen eta horrela segituko dut. Bestalde (munduko

su-txikiaren itsasoak; gizarteak) ez du itxura onik elkartasun, gizarte mugimendu, mundua egiteko edo pentsatzeko beste modu baten alde borrokatzen dutenei dagokienez. Gizartean nabari den sentsazio hori dut: gero eta kontserbadoreagoak, politikoki zuzenagoak garela, beldurtiagoak zerbait esateko eta eskua luzatzeko, uste dugulako eragingo digula gure lanean... Gehiengoa bere arropa gordetzeaz baino ez da arduratzen, eta hori mugimenduetan ere nabari da: GKE gehienak “governuz barrukoagoak” dira kanpokoak baino, jende gitxiago sartzen da auzo-elkarte, jai-batzordeetan... Gurago du orain garai latzetan nork bere gerrikoa estutu, hobeak heltzean berriro zarrasteltzeko! Pentsatuz “besteek konponduko dute hau”, hori

gero eta sakonago sartzen dabil gizartean; eragina du mugimenduetan. Halere, zorionez badira, gero eta gehiago kolektibo txikiak edo enpresa, babesle edo gobernuen babesetik urruneko ekimenen bidez, gauzak aldatzearen alde dihardutenak. Eureka segituko dugu saioa egiten. Garai batean *Mar de Fueguitos* GKEi oso lotuta zegoen, apurka deslotzen joan da; batzuk enpresen edo botere politikoa alderatu pasa direlako. Zorionez hemendik defendatzen dugun ideien alde, gauzak egiteko beste modu horretan lanean segitzen dutenak badira oraindik, hain zuzen gertatzen dabilenaren arduradun diren horiekaz inolako lotura barik dihardutenak.

—**Hori gaur, eta bihar?**

—Oso gaitz! Tas-Tasek 18 urte eroan arren, entzule gehiago eta egin gura genukeena egiteko beharrak handiagoak diren momentua heltzen da: ikusiko da datozen 2-3 urtetan, entzule-kopuruan beste irrati handi batzuk lehiazteko falta duen jautzia egiten duen, ala orain 5 urte arte legez etxe-ingurukoa izaten segituko duen. Jautziaren aldekoa da apustua; nik uste baietz, kostata, baina Tas-Tas lako ekimenak eta *Mar de Fueguitos* lako saioak etorkizuna badutela! Edozein egunkarik, irrati, duten kutsu berdin, aspergarri, “guzurti” edo irrealaren susmo horren alternatiba izango dira; alternatiba beste bide batetik doa, eta bide horretan gaude. ○

### Armintzako eta Uribe Kostako suei begira

—**Armintzakoak zarenez gero, ezin galdetu barik utzi: zelan ikusten dituzu Uribe Kosta, edo inguru honetako sua, suak ala su-txikiak?**

—Uff! Asteburu batzuetan, noizean behin joaten naiz herrira. Eta zer ikusten dudari? Uribe Kosta hazten doala ikusten dut, gero eta errepide gehiago, etxeak eraikitzea gero eta gehiago suspertzen da jendea hobeto bizi dadin edo... Ez dakit horregaz guztiagaz, eta

hori egiteko moduagaz, Uribe Kosta beste etxebizitzaz eta jendez betetako gune handi bihurtuko den, non lehen edukitako gauza onik batere ez den lotuko, ala ez; halere, ez naiz batere baikorra. Norantz goaz? arrainik ez dagoen kostarantz, arrantzalerik ez dagoen portuetarantz, errepideak, autoak heltzen diren baina herri-bizitzarik ez dagoen herrietarantz... Nire herriari dagokionez, beti kontatzen dut: orain

urte batzuk kaiaren atzealdean bazen haitz handi bat, goian arroka handi bat zuena, herriko sinbolotzat edo genuena herritarrok, eta orain urte batzuk olatu batzuek arroka hura bota zuten, inork botatzeko gai izango ez zeramatzan arroka zirudiena! Han milaka edo milioika urte zeroan arroka zirudiena, jausi egin zen! Hori ikusi nuenean pentsatu zuen, “honek iragartzen du argiro ez goazela bide onetiki!”.





## Siluetak munduan zehar

Bideoak eginez egin zuen salto Ainara de la Torre (Getxo, 1982) ikus-entzunezkoen mundura. Erandioko Tartanga eskolan errealizazioa ikasi ostean, *Eulibista* ekoiztetxea ([www.eulibista.com](http://www.eulibista.com)) sortu zuen 2004an. Orain urte bi, argazki kamera eskuan hartu eta argazkilaritzan sakontzen hasi zen, bidaia lagun duen Ander Ormaetxeak bultzatuta. Itzalen atzean ezkutatzen diren siluetak zein Portugalera, Finlandiara, Errusiara eta Amerikako Estatu Batuetara egindako bidaietan harrapatutako instanteak oparitu dizkigu 178. zenbakirako. [www.flickr.com/\\_at\\_](http://www.flickr.com/_at_)

Argazkiak: **Ainara de la Torre**




















# BETIKO

IKASTOLA

## GURE GAURKO ETA BETIKO IKASTOLA

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezikuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Leioako Ikastolen Elkartearen ikastola bakarra.



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez  
Tlf: 94 464 23 64  
94 464 33 07  
Fax: 94 464 22 05  
Helbidea: Artatza auzoa 84  
info@betikoikastola.net  
www.betikoikastola.net

# GAVRKO



GIZONENTZAKO  
MODA

Tel: 94 460 70 84  
ALGORTA

[zinema]

## Laburren gaua

Getxoko Kultur Etxearen **film laburrei** begirako ekitaldia **uztailaren 6an eta 7an**



Gaurik Laburrena ekitaldian ikusi ahalko den *Bizitzaren Kopa* filmako irudia

**Garrantzitsuena** honetan ez da gauaren iraupena, filmarena baino. Horregatik urteko gaurik laburrenaren egunetik ia aste bira antolatu dute Getxon, urtero legez, *Gaurik Laburrena* ekitaldia, film laburren gaua, hain zuzen ere. Ekitaldia, ohi legez, egun bitan banatzen da: lehenengoan gaztelarazko pelikulak emongo dituzte eta bigarrenean euskarazkoak. Bai uztailaren 6rako bai 7rako hitzordua 21:00etan ipini dute Algotako Biotz Alai plazan eta sarrera doan izango da.

Euskarazko lanei lehentasuna emonez, uztailaren 7an eskainiko dituzten eta dagoeneko zaleentzat ezagunak diren hainbat zuzendariren lanak hurrengoak dira: *Amaiaren Hasiera* (Jon Herranz; 4min), *Amaigabea* (Aitor Oñederra; 3min), *Amona Putz* (Telmo Esnal; 8min), *A/Z* (Iceberg Fernandez; 18min), *Bizitzako Kopa* (Enara Goikoe-txea; 16min), *Kantatzan ez duen herria hila* (Iban Gorriti; 14min), *Mozkor Politikoa* (Javi Alonso; 4min) eta *Ahate*

*pasa* (Koldo Almandoz; 12min).

Lehenengo eguneko erdarazko film laburrak, oster, ondorengoak: *Amada Mantis* (Urtzi Perez, 20 min), *The Line* (Roberto San Sebastian, 6 min), *Last Smile* (Aitor Aspe, 2 min), *Planeta Z* (Axel Casas, 11 min); *Un novio de mierda* (Borja Cobeaga, 4 min), *Lacruaquet* (Asier Iza, 12 min), *Beware! The Killer!*

**«Oro har, euskarazko 7 film labur eta gaztelarazko 14 ikusteko aukera egongo da bi egunetan zehar»**

(Jesus Hernandez Ruiz, 2 min), *Manual practico del amigo imaginario* (abreviado) (Ciro Altabas, 19 min); *Love, a collision!* (Jesus Hernandez Ruiz, 3 min), *Juan con Miedo* (Daniel Romero, 11 min), *5 Recuerdos* (Oriana Alcaine y Alejandra Marquez, 12 min); *Hazte amigo de las gordas* (Borja Glez. Santaolalla, 13 min), *Lo siento, te quiero* (Leticia Dolera, 11 min), eta *Mi otra mitad* (Beatriz Sanchis, 18 min). ○

## BBK Live jaialdia

**Uztailaren 8tik 10era bitartean** egingo da ohi legez Bilboko **Kobetamendin**



Rise To Fall taldeak zabalduko du 2010eko Bilboko BBK Live jaialdia

**Hil** hasiera jo zuen itxiztat egitaureaua 2010eko Bilboko BBK Live jaialdi erraldioak eta ordaintzekoak. Uztailaren 8tik 10era bitartean egingo den musika jaialdiaren bosgarren ekitaldia da aurtengoa eta euskal taldeen izenak ez dira erraz aurkitzen egitarauan barrena. Halere, bada bat behin baino gehiagotan orrialdeotara ekarri duguna eta BBK Live jaialdiko lehengo egunean eta lehenengo kontzertua eskainiko duena, hau da, jaialdia zabalduko duena, Rise To Fall, hain zuzen ere. Bestalde, egunez egun urrundik etorritako hurrengo talde entzuteko eta ez

hain ezagunek joko dute: uztailaren 8an, eguena, Rammstein; Slayer; Skunk Anansie; Rise Against; Bullet For My Valentine; Volbeat; Anti-flag eta esandako Rise To Fall-ek; barikuan Pearl Jam, Alice In Chains, Paul Weller, Gogol Bordello, Coheed & Cambria, Biffy Clyro, Dropkick Murphys, Gomez, Wild Beasts eta Capsula-k eta zapatuan Faith no More, Manic Street Preachers, Jeff Tweedy, Jet, Feeder, TSOOL, Los Campesinos!, The MacCabees eta Band of Skulls-ek. Sarre-rak: egunekoak 50 eta bonoak 110 euro.○

**Informazio gehiago:** [www.bilbaobbklive.com](http://www.bilbaobbklive.com)

## diskoak

**Goizalde surrealistak**  
Surfin Kaos  
Brian's Records



2002an sortu zen Surfin Kaos rock taldea Donostian, baina hiru kideak, beste talde batzuetan ibilitakoak ziren aurretik. Laugarren lana dute *Goizalde surrealistak* eta Donostiako Egia auzoko Le Bukowskin grabatu dute. Ohi legez, rock and rolla da nagusi, baina bestelako estiloek ere lekua egin diete, eta aurreko lanak baino "lasaia" da.

**Bizi-bizirik**  
Gozategi  
Balear Musik



Lau urteren ondoren disko barria kaleratu du Gozategi talde ezagunak. Lan honegaz aro bat bukatu eta barri bati ekin diotelako sentsazioa daukate. Seigarren diskoan ez dago kalejirarik, baina bai trikitixa eta arin-arina. Gaintzeko abestiak, marxa handikoak, eta melodiak, azkarrek bezain sakonak direla ziurtatu dute.

**Jon & Sugramas**  
Jon & Sugramas  
Gaztelupeko Hotsak



Jon Gurrutxagaren (Arima Beltza, UEK) talde barria dugu *Jon & Sugramas*, eta batera alde batera utzita, konposizio eta abeslari lanetan buru-belarri murgilduta. Gitarra *riff* indartsuak, erritmo pisutsuak, psikodelia eta *hammond* organoaren ukituak batzen ei ditu 70eko urteetako blues-rocka gogorarazten duen disko honek.

## jazz kontzertua > Miguel Salvador

Orain dela urtebete eskas argitaratu zuen Portugaleteko gitarra jotzaileak bere izena daraman *Miguel Salvador Project* (Gaztelupeko Hotsak, 2009). Getxoko Andres Isasi Musika Eskolan eta Mr Jam-eko (Deusto) irakaslea da musikari legez hamaika lekutako jaialdietan eta musikariakaz jo du, Getxoko jaialdian ere parte hartu du berbarako. Hurrengo uztailaren 9an Gorlizko elizan eskainiko duen emanaldian bere laneko zein bestelako jazz doinuakaz gozatzeko aukera izango du bertaratzeko denak, hitzordua 20:30ean da eta sarrera dohainik.

**Informazio gehiago:**  
[www.myspace.com/miguelsalvadorproject](http://www.myspace.com/miguelsalvadorproject)  
[www.gorliz.net-en](http://www.gorliz.net-en)

## diskoa > Salvador eta Laboa

Mikel Laboaren alboan hamaika emanaldi egin ostean *Lilurarik ez. Mikel Laboarekin solasean* (Vaiven Producciones) diskoa plazaratu du Iñaki Salvador piano jotzaileak, Javier Mayor de la Iglesia kontrabaxuan eta Hasier Oleagak baterian dihardutela. Jazz hiruko formatua erabili du oraingoan Donostiako musikagileak, eta bere «eremura», jazzera, eroan ditu, besteak beste, «Txoria txori», «Izaren hautsa», «Ihes betea zilegi balitz» edota «Baga, biga, higa». Orain dela sei urte abiatutako jazz eta kantagileen lana uztartzeko egitasmoaren barruan sartzen da lan hau ere. Hamabigarren diskoa du Salvadorrek eta dagoeneko hasi da aurkezpen emanaldiak egiten.

**Informazio gehiago:**  
[www.myspace.com/inakisalvador](http://www.myspace.com/inakisalvador)





**Getxoko Andra Mari Gasolindegia**

Txartel hau aurkezten baduzu  
**%50eko**  
**deskontua**  
izango duzu zure autoaren garbiketan

**Getxo eta Berango artean**  
**Tf. 94 430 15 00**  
(15 eguneko epemuga)

**I**

**Iñaki Bitxitegia**

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Vilamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45  
Tellebxa 1 Tf. 94 460 27 41

**Algorta**

[liburuak]


## Egileen bideak idatziz

Beste **16 bide-aurrelariren** bizi-zertzeladek osatu dute **Bidegileak** bilduma

**“Euskararen alde aritutako norbanakoak, etxekoak zein kanpokoak, ditu aztergai. Aztertu ez ezik, omendu ere egin nahi ditu, gaurko zein bihar-etzikoko belaunaldiek gu baino lehen aritu izan diren andre-gizon saiatu horien berri izan dezaten”,** berba horiekaz aurkezten da 1987an abiatutako **Bidegileak** bilduma. 200dik gora biografia plazaratu dira bildumaren barruan da-borduko eta oraintsu argitaratu dituzte kopuru hori handitzera datozen euskararen alde lan eskerga egin duten beste 16 bidegileren bizi-zertzeladak. **Bidegileak**-en bultzatzaile Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza diotenez lanotan (sarean bere) zera aurki

**«J.Barbier, Henrike Knörr, Gotzon Garate, Isabel Lertxundi, Angel Zelaia...»**

lezake irakurleak: “24 orriren bueltan da-biltzan biografia-lanak eskema jakin baten arabera atondu dira: *hautzarroa eta prestakuntza-garaia; urrututako bide, ekintza eta idazkiak; eta egindako lanaren balorazioa*”. Hala, launa bidegileren bizitza eta euskararen mesedetan egindakoak jasotzen dituzten 4 **Bidegileak** liburuak kaleratu barri dira: 55.ak Jean Barbier (1875-1931), Estanislao Urruzola *Uxola* (1909-1986),



55. **Bidegileak** liburuxkako azala

Maria Arizmendi *Kaxeta* (1909-2001) eta J. Antonio Arkotxarenak (1911-1996) batten ditu, 56.ak Joseba Zubimendi (1897-1939), Karmelo Etxenagusia (1932-2008), Henrike Knörr (1947-2008) eta Gotzon Garaterenak (1934-2008), 57.ak Juan Iturralde (1840-1909), Fabian Loidi (1909-1985) Miren Terese Urrestarazu (1907-2004), eta Isabel Lertxundirenak (1951-1984), 58.ak Dominique Dufau (1880-1956), Josu Oregi (1919-1995), Jean Etcheverry-Ainchart (1914-2003) eta Adrian Zelairenak (1917). ○

**Informazio gehiago:**  
[www.euskara.euskadi.net/r59-734/eu](http://www.euskara.euskadi.net/r59-734/eu)

liburuak



**Gasolindegian**  
Yurre Ugarte  
Alberdania

Gidoigilea da Yurre Ugarte tolosarra, baina oraingoan zazpi kontakizun biltzen dituen liburuagaz dator. Arte Ederretan lizentziatua izan arren, gasolindegian behar egiten du protagonistak. Egunerokotasuna jasangarri egiteko errealitateak asmatu behar ditu.



**Ez dago etxean**  
Jokin Urain  
Susa

Saiakera liburu honetan, azken urteotan espetxeetan egindako literatura bildu du Urainek. Zenbait presoren ihesaldien kontakizunak ere kontatzen ditu; ihesaldi arrakastatsuak batzuk, porrotak besteak eta, zenbait kasutan, amestutako ihesaldiak.

[kirola]

## Itsasadarreko piragua lehia

**Uztailaren 10ean** egingo da **Plentziako** Itsasadarreko **Igoera-jaitsiera** txapelketa



XX. Plentziako Itsasadarreko Igoera-jaitsiera lehiaketa iragartzen duen karteleko irudia

**Plentziako** Piragua Taldeak antolatzen duen Plentziako Itsasadarreko Igoera-jaitsiera proba uztailaren 10ean egingo da arrastiko 16:00etan. Elkarteko presidente Andoni Intxaurtietak azaldu duenez, “*ezaugarri horiek dituen proba bakarra da Bizkaian Plentziakoa, eta duen garrantziagatik Euskadiko Ibai-Itsasadar eta Maratoinen Kopako probetako bat da*”. Horrenbestez, alde batetik aurtengoa Plentziako Itsasadarreko Igoera-jaitsiera probako XX. ekitaldia izango da, eta bestetik, era berean, XII. Euskadiko Kopako hirugarren proba puntuagarria. Intxaurtietak jakinarazi duen legez, 20-30 piragua klubek parte hartuko dute Plentziako lehiaketa horretan, gitxi gorabehera 100-150 palari.

Piragua lehiaketan parte hartzeko ize-na emoteko (inprimakiak klubeko egoitzara bidaliz edo beheko helbide elektronikora igorritz) epea uztailaren 5ean amaituko da eta talde bakoitzak gura beste palariaren (lizentziadunak) parte-hartze eskaera bidal dezake. Hurrengo maila eta arlotan lehiatzeko aukera egongo da: K-1 (betera-

noak, seniorak, gazteak eta kadeteak), K-2 (beterano, senior, gazte zein kadete), C-1 (gazteak eta kadeteak) eta C-2 (seniorak). Ibairako lema erabiltzeko gomendioa egiten du urteera Plentziako hondartzan lekutu duen antolakuntzak, eta helmuga hiribilduko zubien artean egongo da. Sariei dagokienez, maila eta arlo bakoitzeko lehenengo 3 ontzietako norbanakoek jasoko dute garaikurra.

**«Urteera Plentziako hondartzan lekutu dute eta helmuga zubi bien artean»**

**IX. Itsas-estropada**

Plentziako Piragua taldeak ere antolatzen duen Plentzia-Billano-Plentzia Itsas zehar-raldi-Estropadaren IX. ekitaldia uztailaren 24an (12:00) egingo da. Aurrekoa legez, Intxaurtietaren esanetan, ezagurri horietako proba antolatzen duen Bizkaiko klub bakarra da plentziarra, eta ondorioz, VI. Itsas-kayak Euskadi Kopako 3. proba ere izango da.

[plentziapiraguataldea@gmail.com](mailto:plentziapiraguataldea@gmail.com)  
**664 495 999**

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa Kizol moda**



**350 m²**  
**KIROLERAKO GUZTIA!!**

**URIBE KOSTAKO**  
**KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / Tf. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

**Lacofris, s.l.**



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 - ALGORTA



**Sagarren denbora** > Alfonso Etxegarai plentziar deportatuari buruzko filma

# “Dena galtzen duzularik, gehiago aberasten zira beste gauza batzuetan”

Dagoeneko 25 dira Alfonso Etxegarai plentziarra deportatu zutela. Ipar Euskal Herritik eraman zuten Ekuadorrera lehenik, eta Sao Tome eta Principera gero, Afrikara. Kristiane Etxaluz bikotekideak urte erdia igarotzen du han eta bien bizitza kontatu dute *Sagarren denbora* filman. Uztailaren 1ean estreinatuko dute Plentzian, baina Bilbon, ekainaren 19an egin zuten. Txaber Larreategi eta Josu Martinez zuzendariakaz eta Kristiane Etxaluzegaz berba egiteko aukera izan genuen.



Etxaluz, Larreategi eta Martinez (eskuman), GITE-IPESeko lagunakaz

—Dokumental bat egin duzue eta plentziar bat dauka protagonista, Alfonso Etxegarai, zer kontatu duzue?  
—(T) Deportazioak markatu duen bikote baten historia da: Alfonso Etxegarai eta Kristiane Etxaluz. Euskal Herriko punta banatakoak dira, inguru desberdinekoak, Alfonso Plentziakoa eta Kristiane Domintxinekoa. Euskal Herriaren askapenaren aldeko borrokak lotu zituen eta deportazioak markatu du euren bizitza.  
—Zergatik Kristiane eta Alfonso?  
—(J) *Itsasoaren alaba* filmak oso harrera ona izan zuen eta animatu gintuen ildo bera jarraitzera, historia latzak modu humano batez kontatzera; iruditu zitzai-gun horrelako gauzen gosea zegoela. Lehenengo filma hildako bati buruzkoa da, bigarrena deserriari buruzkoa. Alfonsoren liburua irakurrita genuen, *Regresar a Sara*, hunkitu gintuen. Txaberrek ere Kristiane ezagutzen zuen eta planteatu genion. Berehala esan zigun baietz. Asmoetako bat da, errealitate hori kaleratzea eta memoria egitea.  
—Txantxa artean esan izan duzue

**komedia erromantikoa dela.**

—(J) Dokumentalak maitasuna transmititzen du bikote harremanetik gaindi. Bien bizitzak kontatzen dira, maitasun istorio bat bizi dute; berez ezer berezirik ez dauka, deportazioa ez bada. Harreman hori da ardatzetako bat, maitasun handia darie hitz bakoitzetik; ez bakarrik euren artean, herriarekikoa ere. Haratago, gauzak meioratzeko gura eta pasioa da.

## “Maitasun harremana da filmaren ardatzetako bat, ez bakarrik bikotearen artekoa, herriarekikoa ere”

—(K) Dena galtzen duzularik, askatasuna, erosotasunak, lana... Ez baldin bazi-ra hil nahi, behar duzu maitasuna ardatz bezala hartu. Orduan konturatzen zira, dena galtzen duzularik, gehiago aberasten zirela beste gauza batzuetan.  
—Nolakoak dira Kristiane eta Alfonso?  
—(T) Oso diferenteak. Kristiane da

torrente bat, eta Alfonso, lasaia eta beha-tzailea. Bakoitza Euskal Herriko punta batekoa da, inguru desberdinekoak. Azkenean horrek egiten du ere interesgarria dokumentala.

—(K) Deportazioari esker ez dugu haurrik ukan eta Txaber, Josu eta Ibai presentatu direlarik, ikusi ditugu haurrak bezala. Egia da adinan aurreratzen zirela-rik sentitzen duzula zure bizia pasatzeko

beharra. Ez da gauza bera hurkoari kontatzea edo publikoari; hori da euren talentua, lortu dute intimitatean kontatutakoa publikoari transmititzea.  
—(J) Hori alde bikoa da. Harreman berezia sortu eta azkenean asko maitatzen dituzu zure interlokutoreak. Hortik dator dokumentalean transmititzen den

goxotasuna eta gizatasuna.  
—(T) Gura duzunean pertsonak bizitza kontatzea eta sentimenduak biluztea, ezinezkoa da grabatu eta joan; horrela ez lukete ezer emango. Jendearengana iristeko modurik onena da, erakutsiz zer diren: lehenik, pertsonak dira. Izaera hori askotan ukatzen zaio etsaiari, gizatasuna kentzeko. Ez dakit nork esan zuen: “*Askoz errazago da 500.000 pertsona hiltzea, ez eta pertsona bat hiltzea*”.  
—(T) Motibazioak, ametsak eta ilusioak erakusteko, lehen pertsonan kontatu ezean, ez dauka indar bera.  
—Beraz, haurrik ez, baina zuena transmititzeko bidea izango da filma.  
—(K) Biziki garbi genuen hasieratik. Alfonso hasieran ez zen alde, ez delako exhibizionista, baina esan nion ez direla gure garaiko gazteak bezalakoa. Samurrak dira, ez dute euren burua

herriaren gidaritzat, beste mota batekoak dira; Alfonsok hori ikusi nahi zuen.  
—Prozesua nolakoa izan da?  
—(J) Oso naturala. Lau hilabetea grabatu genuen, lehenengo hemen eta gero Sao Tomera joan ginen. Historiak berezko indarra zeukan. Beldurra geneukan kontatzen ez asmatzeko.

## “Lortu dute intimitatean kontatutakoa publikoari transmititzea, hori da Josu eta Txaberren talentua”

—(T) Montajeak eman zigun beldur, luzeegi geratuko ote, erritmo egokirik ez lortzeko beldur. Ez da horren zaila izan.  
—Nabaritu duzue esperientzia?  
—(J) Grabatzeko modua nahiko diferen-tea izan da, oraingoan pentsatuago geneukan. Aurretik elkarriketak eginda geneuzkan eta bagenekien gutxi

gora—behera zer kontatuko zuten.  
—Bereziki sortu duzue musika dokumentalerako.  
—(J) Arkaitz Minerrek egin du. Luxua izan da berak eta Ruper Ordorikagaz jotzen duten gainontzeko musikariek parte partzea, Ruperrek berak, Maddi Oihenartek, Eñaut Etxamendik...

—Esperientzia ona?  
—(J) Oso ederra. Horrelako bizipenek aldatzen zaituzte. Urtebeteko egitasmoa da eta barruan zerbait uzten du. Edonori gomendatuko nioke horrelako pertsonak entzutera eta historiak kontatzera.  
—(T) Bitarteko gutxi behar da eta beharrezkoak dira. ○

## Sao Tomeko gobernuaren “trukerako karta”

**Ez zuten sartu nahi** pertsonalismoe-tan, baina film horregaz, ohartu ei ziren jende askoren historia kontatzen dela, eta euren “*erronka*” hori zen: “*Pentsatzen dugu komunikazioa garrantzitsua dela. Nola gauza berriak maite ditugun egitea, zergatik ez esploratu? Gainera, “Itsasoaren alaba” asko gustatu zitzaigun*”. Kristiane Etxaluz oso ziur da hartutako erabakiagaz.

Izan ere, Etxegarai deportatuta dago, baina ez dio bakarrik berari eragiten, Etxaluzen bizitza hankaz gora jarri du deportazioak: “*Nire eta nire senideen bizitzetan sekulako aldaketa izan zen, guztiak kontzentratu ginen horretan*”. Baina aitortzen duenez, “*beharbada, deportazioa izan ez balitz, ez ginatkeen hain loturik izanen*”. Berak urte erdia igarotzen du Sao Tomen: “*Han nagoelarik hemengoetatik naiz separatua, eta hemen naizelarik, Alfonsoz naiz separatua*”.

Gasto handia ei da horrelako bizitza, ekonomikoa eta indarrarena. “Sao

*Tomen bizitzen ahal zira aberats edo pobre bezala; gu bizi gara erdibidean, baina ez gara batere lotuak*”. Etxegarai- lana badauka, bizitzeko nahikoa irabazten du baina gero eta lan gehiago egin behar du: “*Halere, deliberatu genuen ez genuela nahi Espainiar Estatuaren dirua- rekin bizi, autonomia pixka bat lortzeko*”. Izan ere, “*Alfonsoren egoera huts bat da*”.

Saiatu dira nazionalitatea lortzen, baina Etxaluzen azaldu duenez, hango gobernuak ikusten du Etxegarai karta bat bezala: “*Herri pobrea da, beti eske dira gobernu botereetsuen faboreak ukai- teko; trukerako karta bat da Alfonso*”.

Etxaluzen helburua da Etxegarai Euskal Herrira ekartzea, Domintxinera, “*fikzioz bada ere; helburu horrekin jendearekiko lotura handiagoa da, Alfonso ere domintxindartu da*”. Gainera, bertan sagardotegia jartzea dute amets, sagra-rondoak zaintzeko denbora iristeko gogoz.

Halere, eta urrun egon arren, oso

gertuko sentitzen dute Euskal Herria. Etxaluzek hemen ematen du urte erdia eta saiatzen da lagun denakaz harremana mantentzen. Gainera, oso gertutik jarraitzen dute Euskal Herriko egoera: “*Azkenean besteak baino informatuago gaude, lerroen artean ere irakurtzen dugulako*”.

Dokumentalagaz gauza bera gerta-tzen ei zaio: “*Alfonso hemen dago. Goizean telefonoz deitu du bi aldiz atzo- ko aurpezipena nola joan zen galdetzeko; segitzen du hemen balitz bezala. Oso prudente eta zintzoa da, adi dago*”.

Etxaluz ere, inoiz baino errotuago dago bere sustraian: “*orain arte ez naiz behin ere sentitu hain baserritar, hain nire lekuko*”.

Biek ala biek argi daukate Etxegarai ez dela “*etorriko legalki, Euskal Herriko problema orokorra konpondu artean*”. Baina beharbada dokumentala bukatu gabe dago, beharbada urte batzuk barru grabatuko dute azken eszena, Domintxingo sagarrondoan artean.



Unai Elorriaga > Billamonteko aldatzak

# “Handik pasatu behar genuen ikastolara joateko Telletxen bizi ginenok”



“Gustura joaten ginen gu ikastolara, Txilibitu danbolin irakurri eta buruz ikastera”

**Egia esateko,** Algortako edozein bazter aukeratzeko ez nuke arazo handirik izango, edozeinek dauka niretzat puntu positiboa, seguru antzean umetan guztietatik ibili nintzelako tatarrez, guztietan jausi nintzelako inoiz. Aukera nezakeen San Nikolas plaza, orain zulo deabruzkoa den hori berori, edo Basagoitiko edozein txoko, edo Kasino plaza, edo Maria Kristina, edo San Inazio (zenbat santu), edo Telletxe, antzinako tren-geltokia, edo Fadura bera, edo Arrigunaga, edo Ereaga, edo Azkorriko arbola-hareak, edo Usategi.

Baina konturatu naiz guztiak daudela

aurretik hautatuta, guztiak agertu direla aldizkari honetako txoko honetan, normalean ere badenez. Leku askozaz apalagoa aukeratu dut nik beraz: Billamonte. Edo Billamontes, askotan entzun izan dugun bezala. Eta antzina baserria baino ez zen oraingo etxe eta lorategi pila hori hautatu dut han eman dudalako haurtzaroko zati handia (berriz ere haurtzaroa, nola ez...). Han bizi ziren nire izeko-osabak eta lehengusu-lehengusinak, eta han ematen nituen boladak. Han jolasten nuen inguruko umeekin, han egiten genituen auto lasterketak, plastikozko autoekin,

eta han irabazten nuen batzuetan eta galdu beste batzuetan. Han egiten genituen gaueko paseoak izekorekin eta lehengusinekin, han harrapatzen genituen intsektuak eta etxeko txakurrak han harrapatzen zituen katuak, bakoitza bere zoroak bizi duelako. Eta, batez ere, handik pasatu behar genuen ikastolara joateko Telletxen bizi ginenok. Eta gustura joaten ginen gu ikastolara, Txilibitu danbolin irakurri eta buruz ikastera. Baina benetan gustura egiten genuena zen ikastolara joan eta etorri, Billamonten barrena. ○

## Toponimoa > Billamonte

**Billamonte (kalea, plaza, baserria eta etxaldea):**

1959an Viviendas de Vizcaya etxalde berri eta handia egiten hasi zen Billamonte etxarean orubean eta auzo barria zeharkatzen duen kaleari auzunearen izen bera, Villamonte, ematea proposatu zion Udalari. Esan behar da izena ez dela barria 1873an horrela deitzen baitzen inguru hartatik zihuan bidea: Con carretera llamada Villamonte (1873). Nahiz eta gaur egun oso erabilia ez izan 1966ko testigantza batek esaten digu kasu honetan ere amaieran -s gehitzen ziotela izenari: Villamontes. Billamonte baserria izen hau duen kalea eta Billaondoeta elkartzen diren gunean egon zen, harik eta izen hori duen etxaldea egitean bota zuten arte. Itxura denez, izenaren osagaiak villa "hiri" edo "etxe" eta monte "mendi" dira. Bitxia da izen erdaldun peto-petoa Getxo erdian aurkitzea. Litekeena da 1614tik aurrera ageri den izen hau Somorrostro inguruan egon zen Villamonte dorretxearen oihartzuna izatea: Don Lope Diaz fue fijo vasterdo de Don Lope Diaz, fijo de Don Diego Lopez, Señor de Vizcaya, e dióle este su padre a Castielçarra de Loredó [Gallarta] e poblo alli en Villamonte, cavo aquel castillo (1475, Bienandanzas e Fortunas). Esan bezala etxe zaharra zen eta oso ondo dokumentatua zegoen. 1614an ageri da lehenengoz: Cassa y caserria de Billamonte. Etxe izen askogaz gertatzen den bezala, izen honen gainean eraikitako toponimoak ere baditugu: Billamonteondo eta Billamontesolo.

# Solaguren txinatarra

Txinako benetako zaporeak ezagutzeko



Xie Qi Solaguren jatetxeko kanpoaldean

**Telebistako lehiaketa** batean parte hartzeagatik egin da ezagun Xie Qi. Baina, kasu honetan, ez diogu Jose Luis Kortaren aldarteari buruz galdetuko. Errotatxu poligonoan, gasolindegia ondoan orain hilabete zabaldu zuen etxera eroateko janari zerbitzuagatik ekarri dugu *Nora joan* atalera. Txinako Su Zhou, 11 milioi biztanleko “herri txikian” jaio zen Qi, baina orain urte bi etorri zen Getxora. Sorterriko benetako sukaldaritza gure artean zabaldu gura du, su artean ibiltzea bere pasioetako bat baita: “*Nire emazte eta lagunakaz hemen ohikoak diren jatetxe txinatar batera joan nintzen lehenengoan adarra jotzen zeudela uste nuen. Hori ez zen Txinako janaria, inondik inora!*”. Lagunei berak ezagutzen zuen janaria egin, eta horietako batek, Solaguren jatetxeko jabeak hain zuzen

ere, bere lokalean janaria prestatu eta saltzeko aukera eman zion.

Astelehenetik zapatara, arrastiko 19:30etik gaueko 23:30 arte Shan Gai saiheskia edo Caho-Cho-Qi oilaskoa dastatzeko aukera ematen du: “*Hemengo jatetxeetan baino barazki gutxiago erabiltzen dugu Txinan, haragiaren usaina kentzeko beharrezkoa dena soilik*”. Udaberriko biribilki “artxiezagunak” ere, ez dira ezagutzen ditugun modukoak: “*Hemengoak handiegiak dira; guretzat, plater berezia dira biribilkiak, Gabonetan jaten ditugu*”. Getxo, Larrabasterra eta Sopelan, janaria etxean bertan jasotzeko aukera dago; gainontzekoak lokalera hurbil zaitezketen Txinako zaporeak ezagutzera. ○

**Bilbo-Plentzia errep. 18. km, GETXO**  
**Tf. 94 430 61 77**

## aldizkaria etxean jaso gura baduzu

**HARPIDETZA >** bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....Kalea/zenb.....  
Herria..... e-mail..... Telefonoa.....

**Urtero** ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro ☐ beste kopuru bat ..... euro

**Kontu zenbakia (20 digito)**

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

**UK Uribe Kostako Aldizkaria** 171 posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37



**ARTAZA ETXEA**  
**JATETXEA**

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

*antebarnetan bazkari eta afariak enkargatzen*

Erreserbak: 94 463 03 92  
Artaza Etxea Euzkian, Gubela erailaren aurrean • LEIOA

**JUAN-MARI**



**Harategia eta txarkuteria**



LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25  
**AREETA**



**KONTXI**



**ZUAZUBISKAR**

**URDAITEGIXA**

*Adituak gara, Urdaiatzpiko Iberiko, Pate eta Gaztaitan!!*

Alangobarri 10, ALGORTA  
Tf. 94 491 02 93



**GOZOLABEA**

**GALDARETXE**

- Maidagan 35, GETXO Tf. 94 491 11 25
- Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
- Sabino Arana 67, LEIOA Tf. 94 464 40 58
- Telletxe 13, ALGORTA Tf. 94 491 51 44
- Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 676 52 58





**ITXASGANE**  
prentsa • aldizkariak  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Auziluzo z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

*María Jesús*

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangoberri 10  
Tf. 94 491 08 21  
ALGORTA

HARTU TXANDA

**GOIZEAN**

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pertsa"

Prentsa - Fruita lehorrak - Aldizkariak - Lisomariak

Ordutia Mendatea 1      Telefonetxe 13  
Tf. 94 430 22 13      Tf. 94 460 02 08  
GETXO      ALGORTA

*Usategi*  
*kafetegia*



*Usategi parkea z.g.*  
*Algorta*

*\*Tf. errenterak: 94 460 64 13*

## [horoskopoa]


<p>◆ <b>URA</b></p> <p><b>(Abenduak 21 urtarrilak 19)</b> Maitasun harremanei arreta handiagoa jarri, bestela damutuko zaizu. Ustebako dirua helduko da zure eskuetara, ez xahutu. Osasuna ez duzu oso orekatua izango.</p>	<p>◆ <b>OTSOA</b></p> <p><b>(Urtarrilak 20 otsailak 18)</b> Sentibera eta errukibera sentituko zara lagunakaz. Inbertsiorik eskaintzen badizute, zuhur jokatu. Bestalde, zeure bizimodu desordenatuak kalte fisikoak eragin diezazkizuke.</p>	<p>◆ <b>ADARRA</b></p> <p><b>(Otsailak 19 martxoak 20)</b> Autoa edo etxea aldatu gura badituzu, oraintxe da une egokia. Saia zaitetz lanean arreta jartzen. Osasuna gehiago zaindu beharko zenuke.</p>
<p>◆ <b>AITZURRA</b></p> <p><b>(Martxoak 21 apirilak 19)</b> Zure bizitza sentimentala sakonean aztertuko duzu. Arlo ekonomikoari dagokionez, senari kasu egin. Besteek zu errespetat zaitzaten, aldarrika itzazu zeure iritzia.</p>	<p>◆ <b>HOSTOA</b></p> <p><b>(Apirilak 20 maiatzak 19)</b> Harremanik gustagarrienak betiko lagunakaz izango dira egunotan. Ez egizu lotsarik senti utzi zenuena eskatzeagatik, zeurea da. Pertsonarik osasuntsuena zarela pentsatuko duzu.</p>	<p>◆ <b>EGUZKIA</b></p> <p><b>(Maiatzak 20 ekainak 18)</b> Beti zalentzatan zabilta, bada apur bat arriskatzeko garaia. Lanean, baliteke gora egiteko aukera izatea. Baina zure osasuna asteotan ez da inoren inbidia izango.</p>
<p>◆ <b>GARIA</b></p> <p><b>(Ekainak 19 uztailak 18)</b> Saia zaitetz moldakorragoa izaten, batez ere lagunagaz. Izan zaitetz eskuzabala inork laguntza eskatzu gero. Lanean "pilak jarri" beharko dituzu. Zure osasunak hobera egingo du.</p>	<p>◆ <b>LASTOA</b></p> <p><b>(Uztailak 19 abuztuak 17)</b> Familiagaz zenuen zorra ordaindu behar izango duzu. Jendeagaz tratuan ondo moldatzen zara, segi horrela. Gogoratu, prebentzioa da osasun ona izateko sekretua.</p>	<p>◆ <b>IRATZEA</b></p> <p><b>(Abuztuak 18 irailak 16)</b> Zeure sentimenduak azaltzeko gaitasun handia izango duzu. Lanari dagokionez sasoi bete-betean zaude. Baina maite duzun norbaitek tristura, depresioa eragin diezazuke.</p>
<p>◆ <b>META</b></p> <p><b>(Irailak 17 urriak 16)</b> Maitasunean, egoera gatazkatsu bati aurre egin beharko diozu. Lanean dena askoz hobeto aterako zaizu. Zeure osasunak txarrra egingo du, zaindu zeure burua.</p>	<p>◆ <b>HAZIA</b></p> <p><b>(Urriak 17 azaroak 15)</b> Izarrek maitasunerako sasoi egokia iragartzen dute. Hortaz, aprobetxa egizu unea. Ez da inbertsioak edota dirua jokatzeko garai txarra. Osasun aldetik makal ibiliko zara.</p>	<p>◆ <b>NEGUA</b></p> <p><b>(Azaroak 16 abenduak 20)</b> Erromantizismoa eta besteen alderik onena ikusteko joera sentituko duzu. Ezin bestela izan, sakonean horrelakoa zarelako. Aurrerantzean zure osasunak onera egingo du. Zorionekoa zu!</p>

**LA KANTERA**  
**SKATE ESKOLA**

Udako ikastaroak  
Skate kanpamendua

**INFORMA ZAITEZ WEB ORRIALDEAN**  
**www.skateskola.com**  
**http://camp.skateskola.com**  
**Tf. 696 231 497    lakantera@skateskola.com**







HITZ GURUTZATUAK

12345678910

1

2

3

4

5

6

7

8

9

10


Ezker eskuma

1. Gaztak egiten ditu, gaztagina. 2. Lerro zuzenaren itxura duena makotu, makurtu. Jardun. 3. Darama. Zuhaitz mota. 4. Arrautza formako. Ipar Euskal Herrian, arroz. 5. Hautzaro. Lehenengo bokala. 6. Berrogeita hamar, zenbaki erromatarren arabera. Habia. 7. Garaia, goratasun handikoa. Jira, itzulia. 8. Nafarroako udalerria, Lizarrako merindadean. Gaizto, maltzur. 9. Sortu zintuena. Aipatu, hitzez adierazi. 10. Ogibidez kontuak egiten dituen pertsona.

Goitik behera

1. Kristautasunaren lehen mendeetan erromatar inperioaren zenbait eskualdez jabetu zen herri germaniar. Lamaismoan, maisuak. 2. Bukaera, amaia. Gernika eta Lumoko elizatea. 3. Toka, zeramaten. 4. Aireko kable batetik hartzen duen argindarrak mugiarazten duen autobus mota. Kontsonantea. 5. Ate, hitz elkarketan. Berako auzoa. Urrearen ikur kimikoa. 6. Garen hauek. Joan den urtea. Zilegi. 7. Bokala. Biolinaren antzeko musika tresna. 8. Larroriko biztanle. 9. Gauza ederrak sortzea helburutzat duen giza jarduera, arte. Nafarroako baso ezaguna. 10. Ezporogiko auzoa. Sexu emea.

Soluzioa

V	I	H	V	T	U	T	N	O	K
U	T	V	T	I	V		V	W	V
T	V	T	I	Z	S	E	U	W	
V	H	I	B		V	U	T	T	V
V	I	H	V	Z	I	B	V	T	
V		O	H	V	Z	E	W	U	
S	I	H	H	I		T	V	B	O
E	T	H	V		V	O	H	V	D
I	H	V		U	T	R	E	K	O
A	E	T	I	G	V	T	Z	V	G

ez hain gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zein herritako Historia Jardunaldietan parte hartuko du Eusko Ikaskuntzak uztailean?

> Aurrekoaren erantzuna: Euskal Herria Zuzenean  
> Irabazlea: **Karmele Elozegi\***  
\*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

**Argia**

astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan

*Zein urtarotan ospatzen dira Sopelako Jaiak?*

- **Neguan**
- **Udazkenean**
- **Udan**

> Aurrekoaren erantzuna: Dinosaurioak  
> Irabazlea: **Ander Sarasketa\***  
\*deitu telefonoz: 94 491 13 37

**Aurtengo Nobedadea: Zoo Zorua**

Demoa:  
www.elhuyar.org/zoozorua

SARIA

Bidalai erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



BEGO RUIZEK ATERATAKO ETA UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

GORLIZKO FISIOTERAPIA LAGUNTZAILEAK, 1960

**la mende bat da** Bizkaiko Foru Aldundiak Gorlizko "Sanatorio Marino Helioterapeutico" eraiki zuela 1919an, baina proiektu garrantzitsu honen benetako sortzaileak eta bultzatzaileak Enrique Areilza eta Luis Larrinaga medikuak izan ziren. Argazkikoek bertan ikasi zuten espezialitate hori. Basurtu Ospitalekoak eta Euskal Herritik kanpokoak ere (Valladolid, Burgos, e.a.) hori ikastera etortzen ziren. Gogoratu behar dugu erietxe hau, umeentzako erietxe izan zela sorreran baita argazkiko garaian ere; gaur egun ez. 800 bat ume zeuden orduan Euskal Herritik eta Espainia osotik etorritakoak. Poliomieltisa, buru-elbarritasuna,... ziren beraien gaixotasunik arruntenak. Gaixoekiko harremana zuzena eta egunerokoa zen; horregatik umeak, seme-alabak bezala maite zituzten. ○

**Atzean:** M<sup>a</sup> Angeles Garcia (GB), Kontxi Barrenetxea, Mila Calzada.  
**Aurrean:** Mertxe Garai, Bego Ruiz.  
(Lehenengo biak plentziarrak eta beste hirurak gorliztarak)



ENERITZ ITURRIAGA > txirrindularia

“Gorroto dut une txarrenetan positibo izan behar dudala esatea”

Testua: Zuberoa Iturburu



**Defini egizu zeure burua berba bitan.**  
Burugogorra eta pertsona ona.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**  
Printzesen film batean, horrelako jantziak eta giroa oso gustuko ditut.

**Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?**  
Irakasle, beti ere kirolagaz lotuta. Kantatzea ere oso gustuko dut.

**Txikitan zer izan gura zenuen?**  
Printzesa.

**Badaukazu ohitura txarren bat?**  
Askotan gura dut beti arrazoia eduki, baina barkamena eskatzen ere badakit.

**Eguna ala gaua?**  
Eguna, oso gustuko dut lo egitea, jatea eta kirola egitea.

**Zein da zure ametsetako bat?**  
Mundial bat irabaztea.

**Gorroto duzun topikorik badago?**  
Une txarrenetan nagoenean positibo izan behar dudala esaten didatenean.

**Zer ez zenuke sekula barkatuko?**  
Traizioa.

**Errepikatuko zenukeen bidaiarik badago?**  
Argentinara, lagun bategaz joan nintzen eta primeran pasa genuen.

**Parrandarik politenak non?**  
Gutxi egiten ditut, baina orduan handiak izaten dira, ene! Durangon eta Ibizan.

**Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?**  
Abadiño, txikitatik bizi baina urte asko kanpoan egon behar izan dut. Oso gustuko dut. Asko bidaiatzen dut eta nigaz doazenek esaten dute zer politak diren toki horiek, baina Abadiño eta Euskal Herria moduan ez. ○

**LABURREAN**— Klabikula apurtu baina errekuperatzen dabil Eneritz Iturriaga txirrindularia (Abadiño, 1980). Dagoeneko entrenatzen ari da, eta hil honetan Italiako lasterketa bitan parte hartzeko asmoa dauka. Iturriaga euskal txirrindulari onenetakoa da, besteak beste, txapeldun izan da Espainiako txapelketan zortzi bider, Italian lasterketa bi irabazi du, Holandan etapa bat, zortzigarren izan da Italiako Giroan eta bederatzigarren Frantziako Tourrean. Kirola maite du eta kirol-magisteritza ikasi zuen, baina txirrindularitzak hartzen dio denbora osoa.

Atzeko jesarlekua estreinatu aurretik...

# Praktika! ezazu!

**Hemen dituzu gidabaimena euskaraz ateratzen lagunduko dizuten Uribe Kostako autoeskolak:**

**ERANDIO**

- GAZTEDI AUTOESKOLA  
• Trabudu kalea, 3 T. 94 467 39 33
- ERANDIO AUTOESKOLA  
• Ibarra kalea, 10 T. 94 467 21 09
- ALTZAGA AUTOESKOLA  
• San Jeronimo kalea, 16 T. 94 655 84 44
- ARIAS AUTOESKOLA  
• Fundacion Jado kalea, 19 T. 94 467 10 35
- ASTRABUDUA AUTOESKOLA  
• Consulado de Bilbao kalea, 9 T. 94 467 54 98

**GETXO**

- ALGORTA AUTOESKOLA  
• Andres Cortina kalea, 6 T. 94 460 94 43
- AMEZTI AUTOESKOLA  
• Ameztia kalea, 9 T. 94 491 09 15
- ARIAS AUTOESKOLA  
• Mesedeetako kalea, 28 T. 94 463 88 57
- Bidezabal kalea, 14 T. 94 430 11 44
- Gobelaurre kalea, 13 T. 94 463 00 19
- GETXO AUTOESKOLA  
• Salsidu kalea, 20 T. 94 430 25 71
- PRECIADO AUTOESKOLA  
• Makaleta etor. 83 T. 651 961 901
- SAN INAZIO AUTOESKOLA  
• Telletxe kalea, 13 T. 94 460 00 45
- URIBE KOSTA AUTOESKOLA  
• Urkiola kalea, 4 T. 94 430 06 05

**URIBE KOSTA**

PLENTZIA

- URIBE KOSTA AUTOESKOLA  
• Portaleta kalea, 11 T. 94 677 02 06

SOPELA

- KAIKU AUTOESKOLA  
• Sipiri kalea, 4 T. 94 676 70 71
- SOPELANA AUTOESKOLA  
• Sertutxa kalea, 6 T. 94 676 03 40
- URIBE KOSTA AUTOESKOLA  
• Laubide kalea, 2 T. 94 676 48 39

URDULIZ

- KAIKU AUTOESKOLA  
• Gobela kalea, 3 T. 94 676 68 66

**Gidabaimena euskaraz**

Azterketa teorikoa euskaraz egiten duten gazteei:  
• **klase praktiko bat doan!**  
• **Europar zehar ibiltzeko interrail bidai baten zozketan parte hartzeko aukera**

OHARRA: Bizkaian, azterketa teorikoa nahiz azterketa praktikoa egin daitezke euskaraz. Bizkaiko Trafiko Zuzendaritzan 3 aztertzaile euskaldun dabilta eta, eskatuz gero, azterketa praktikoa euskaraz egiteko aukera dago.



# JAZZ

## XXXIV GETXO

UZTAILA 1-5 JULIO 2010

CHARLES LLOYD NEW QUARTET • JERRY GONZÁLEZ & FORT APACHE BAND • DAVE DOUGLAS QUINTET  
DEE DEE BRIDGEWATER: To Billie with love - A Celebration of "Lady Day" • DAVID SANBORN TRÍO

944 914 080 • [kulturetxea@getxo.net](mailto:kulturetxea@getxo.net) • [www.getxo.net](http://www.getxo.net)